

EUSKAL ATSOTITZ-BILDUMAK

Durango, 1996-XII-06

Xabier Kaltzakorta

XVI MENDEA

Esan ohi da gure artean euskal literatura hamaseigarren mendean hasten dela. Hor dugu, esaterako, hamaseigarren mende erditsutan, 1545an, argitaratu zen *Linguae Vasconum Primitiae* euskal literaturako lehen-harri preziatua, Bernard Etxeparek idatzia. Mende hau ez dugu aberatsegia izango argitaratu ziren liburuen kopuruari begiratzen badiogu, argitaratu ziren liburuen balioa, ordea, handia denik ezin uka. Guk geure lantxo honetan atsotitz-bildumez hitz egingo dugunez gero, esan dezagun aurren-aurren XVI mende bukaeran, 1596an hain zuzen, argitara zela liburu ttipi bezain baliotsu bat *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas...* Liburutxo honek uste baino antzekotasun gehiago du Etxeparerenarekin. Batetik, biak dira liburu ttipiak luze-laburrean eta baita liburu-neurrian ere. Horrialde gutxikoak dira, beraz, *Refranes y Sentencias*-ek 64 ditu eta Etxeparerenak 52 orrialde testudun, bestetik biak dira erdarazko izenburudunak-zein latinez, zein gaztelaniaz-baina euskarazko mamia dutenak. Harrigarria bada ere kasu bietan edizio osotik ale bakarra baino ez zaigu iritsi, eta, ale bakar horiek atzerrietan izan dute beren egoitza. Etxeparerena Frantziako Bibliothèque Nationalean aurkitzen da eta *Refranes y Sentencias* Alemaniako liburutegi batean. Ale bakar horiek biak, Patxi Altunak Etxeparenez dioen bezala, guk *Refranes*-ez ere esan dezakegu, *mirakuloski* iritsi dira gugana (1). *Refranes y Sentencias*-en kasuan (2) ale bakar hori suntsitu egin zen bigarren mundu gerran. Liburu biak ia erdi ezkutuan egon dira joan den mendera arte euskal idazleentzat berentzat ere. Aita Larramendik egindako liburu-zerrendan ez du Etxeparerena aipatzen ezta Pierre D'Urtek ezta Joanes Etxeberriek ere. Lope de Isasti-k bai osterara, bere *Compendio historial de Guipuzcoa* eta Oihenartek ere, zeharka bada ere, aipatzen du.

(1) Patxi Altuna Etxeparenez ari da era hala dio Liburuak ez dirudi hedadura handia zuenik, ikusirik batetik ale bakarra heldu zaigula mirakuloski, hori gabe ez baikenuen Etxepareren obra ezagutuko... "Sarrera" in *Linguae Vasconum Primitiae 1545-1995* Euskaltzaindiaren edizioa 15 or.

(2) Honez aurrera *Refranes y Sentencias* izendatzeko gure artean ohi denez RS laburdura erabiliko dugu.

Refranes y Sentencias delakoaren bidea ezkutukoagoa dela aitortu behar. Oihenartek ezagutu zuela ez dago dudarik baina ez du aipatzen. Larramendik bere hiztegiaren eranskinean egiten duen errefrau-kuardernoaren aipamenetik gauza handirik jakin ezin den arren, gaur egun badakigu zein errefrau-bildumaren gainekoa den. Hain zuzen gure RS bildumarena (3). Liburu bakoitzeko ale bakarria bakarrik iristea era askotara azaldu daiteke. Liburu biak hedadura gutxikoak izango ziren noski, ale gutxi aterako ziren inprentatik eta urritasun horrek eragingo zuen, neurri handi batean, liburuen galera.

Badago beste antzekotasun ezkuutuago bat RS eta Etxepareren liburuen artean. Lehena errefrau liburua izanik herri-literaturaren esparruan sartzen da, Eihalarreko erretoreak idatzi zuenak badu herri-literaturarekin zer ikusirik, are gehiago, bere poesietan baditu errefrau ikutuak, edo errefrau tankerako zenbait esaldi sentenziotsu (4). Hor dugu esaterako 5 Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui/ Ez pagatu soldataric cerbiçatu gaberico edo, are argiagoa dena, 13 Oguiric eztacussat vilcen haci ereyn gaberico delakoa (5). Bigarren honetan (13an) lehen pertsonan jartzen du, gehienetan hirugarren pertsonan doana. Bestela esan, aditz jokatu gabe egon ohi da askotan errefrau, edo jokaturik badago, hirugarren pertsona. (13an) ostera lehen pertsonara dakar poetak. Poetak hurrengo dakarrena hirugarren pertsonan dakar: Norc cer haci ereyn vilcen dici comunqui. Antzeko errefrauak erruz aurki daitezke, hor dugu, esaterako, Erran zuhur liburutik 528-Nola erein, hala bil. eta hainbat eta hainbat. Ez da lantxo honen egitekoa Etxepareren liburutiko errefrau gisakoak hona aldatzea, beraz utzi dezagun kontu hori hurrengo baterako eta mintza gaitezen guk eza-gutzen dugun lehen euskal atsoitz-bilduma argitaratuaz.

Izenburua:

Izenburua bera luzea bezain argigarria dela esan behar, erdarazkoa eta erdaraz egin ohi den bezalatsukoa. Erdaraz esaldi sentenziotsuak adierazteko badira hainbat hitz *refrán*, *máxima*, *apoteigma*, *adagio*, *aforismo* eta abar uste baino luzeago bat (6). Kontzeptu bera edo beretsua adierazteko ohitura izan da

(3) Badago iruzkintzen ari garen liburu bien arteko beste antzekotasun bat, fortunaren eskuak emana: bi ale bakarrek beren edizio faksimila La Gran Enciclopedia Vasca-ko orrialdeetan ikusi dute, Etxeparerenak lehen liburukian eta RS bildumak X garrenean.

(4) Patxi Altunak ere ohartu du berezitasun hau *Linguae Vasconum Primitiae* 1545-1995 aipatu hitzaurrean honela baitakar (Azpimarra gurea da):

Desira bat agertzea zilegi bada, ailitz omenaldi hau azken urteotan Euskal Filologian lizentziatu diren gure gazteen eta behialako ikertzaile sonatuen lehiakide izan nahiko duten euskalari arrotzen akuilu eta pizgarri, Etxepareren bibliografiak egun duen literatura aldetiko ikerketaren hutsarteak bete eta bere bertsoak esaeraz eta atsoitzez zirtakatzen dituen herri poeta handia dioro lezaten!

(5) Pasarteen zenbakitzea Patxi Altunaren edizio kritikoaren arauera egin dugu.

(6) Hor ditugu zerrenda gehiago luzatu aldera:a) zaharkituta dauden zenbait ale: Anaxir, anejir, anejin, brocárdico, conseja, derecho, enxiemplo, exemplo, enxemplo, ensiemplo escomma, escriptura, espunte, evangelio abreviado, evangelio breve, evangelio corto, evangelio chico, evangelio pequeño, fabla, habla, fablilla, fabrilla, fabriella, fabliella, fazaña, jeroglífica, maza, palabra,

hitzik erabilienaren aldamenean, hots, *refrán* hitzaren ondoan, beste argigarri edo goi mailakoago bat jartzea, eta honelaxe ditugu *Refranes y sentencias* izenez hainbat errefrau-bilduma erdal herrietan. Uste izatekoa da errefrauak berak ohikoak edo garaitu hartan korritzen zutenak zirela *comunes en bascuence* argigarria datorrelako izenburuan. Errefrauak beren hutsean datoz inolako argigarri edo iruzkinik gabe, letra tipo batean ezkerretara eta eskuinetara erdal itzulpena duela, baina beste letra tipo batean, borobilagoan, alegia. Horrexe-gatik da *declaradas en bascuence con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Esan behar da erdarazko errefrauaz ez dela euskarazko alari dagokion erdarazko alea edo baliokidea. La cabra tira al monte erdal errefrauaren euskal baliokideak, besteak beste, txerria basatzara edo Gorbeieko belea Gorbeiera lirateke, eta itzulpen soila ahuntzak mendira joera. Egiten dena da euskarazko errefrauaren hitzak zenbakitu eta gero hitzez hitzezko erdal itzulpenean euskarazko hitz zenbakitu bakoitzari dagokion erdarazkoari zenbaki bera jarri.

Liburuaren edukia

Guk ezagutzen dugun ale bakarrak 539 errefrau ditu eta horietarik hiru errepikaturik agertzen dira (254-280, 256-91, 277-357), beraz 536 errefrau baino ez dira. Ez dira gehiegi Espainian argitaratu ziren Hernan Nuñez el Comendador (zazpi mila errefrautik gora), Mal Lara (*La filosofía vulgar* 1000 errefrau 1568), Marques de Santillana edo mende bereko baina XX mendean argitara izan den Gonzalo Correas-en bildumen ikusian. Kontutan hartu behar dugu guk ezagutzen dugun alea ez dela osoa, badirela falta diren errefrauak, liburuari falta zaizkion orrietatik, noski, gerora zehatzago esango dugun bezala. Oihenartek bere paperetan bazituen bere bilduman argitara eman ez zituen hainbat errefrau. Horietatik zenbait RS ekoak direla ez dago dudarik. Mitxelena ASJU-ko artikulu interesgarri batean eta *Textos arcaicos vascos* liburuan eman zituen argitara.

RS-ko errefrauaren artean badira, itxura guztien arauera, errefrau bihurtu diren kantak. Julio Urkixo izan zen 517 Eder elaea goxean cátacean enearé cáteac jonau biozean errefrauak kanta izan zelako ustea gure artean zabaldu zuena. Zer-gatik da kanta? Galdetuko luke batek baino gehiagok. Gure erantzuna da koplazaharretan behin eta berriro agertzen den *irudiaren* egitura ematen delako, hots, NON-ZER-EDER egitura, edo beste era batera, NOIZ-ZER-EDER edo guri dagokigun kasuan, EDER-ZER-NOIZ-NOLA. Irudi honen ondorengo pentsamenduak, edo, Aitzolek zioen bezala oldozkunak, enearén cáteac jonau biozean litzateke. Diogun irudiaren egituraren indargarri “Santibatek andere” delako eske-kopla zerrendatik bihoaz adibide hauek: 1) *Etxian eder gerrena/Etxekandere lerdena*. 2) *Etxian eder kortzeiru/ dabiltzarian ingu-*

paraula, parlilla, parlylla, patraña, pastraña, patranna, Proloquio, Retraher, retrair, retraire, sentenzuela, verbo, vierbo, viesso, verso, vulgar.b) eta gaurregunekoak ere Axioma, dialogismo, proverbio, frase proverbial, paremia, principio, dicho eta are wellerismo

ru...3) *Etxian eder ohako*, /*Haurra sortzen deneko*...4) *Landar eder ilarra/Haren pean belarra*...5) *Etxian eder ferreta*, /*Haren gainean kaneta*...6) *Etxian eder aitzurra*, /*Nausi bilo izurra*. Guzti hauetan, eta zerrenda askozaz luzeagoa egin nezakeen, NON EDER ZER egituradunak dira eta NON beti da etxean, ondoren datorrena beti da EDER, eta ZER delakoa, beti izaten da etxeko zerbait. Egitura berekoa da guk jarri dugun 517 errefracua. Irudi, pentsamendu jokoa duena da 418 Aunça ygarota oñaça aguiri bat ac daguina beftec yguini errefracua, eta, era berean, kantetarik atereak dirudite 451 Ene alabea axon ama marcaac dabilz yfasoan398 Loca jabilt aguina ta gogoa dot arina aleak.

Badago bakartxo bat errefracua ez dena, erramolde, edo erdaraz esaten den modismoa dena, errefracua izateko bi idea kontrajarri behar direlako. 477 Chacurcatu dagoz delakoak ez du irakatsirik ematen, ez da errefracua erramoldea baizik.

Liburuaren zertzeladak, gorabeherak

Etxeparearen liburua ez bezala *Refranes y sentencias* ia hemeretzigarren mende akabura arte ezezaguna izan da euskaldunen artean. Willem Van Eys euskalari holandarrak Alemaniako Darmstadt hiriko Grand-Ducale de Hesse liburutegian aurkitu zuen liburu ale bakarra 1894an. Liburu hori zen edizio guztitik ordura arte iraun zuen ale bakarra (*unicum*) eta aurkitzaileak artean ezezaguna zela aldarrikatu zuen lau haizetara. Aurkikuntzatik bigarren urtera, hots, 1896an, egin zuen ale bakar horren edizio ia faksimil bat-erdaraz quafacsimilar esango genuke- argazki batean oinarritu beharrean modu bereko letra moldeekin ia argitarapen berdin berdin bat egin zuelako (7). Konturatzen bagara agertu zen lehen alditik hirurehun urtera juxtu juxtu egin zuen argitarapena (8), hirugarren mendeurrenaren kariatara, hain zuzen. Aurten betetzen dira, beraz, ehun urte Van Eys-ek bere berrargitarapena egin zuenetik eta laurhun urte lehenarenetik (9). Garai hartako euskalari eta euskalzaleek (10) begi

(7) Editorearen hitzetan : Reproduction exacte de l'original. Imprimé à Genève chez W. Kündig & fils. Epreuves corrigés sur l'original par M. de Dr. Voltz. Dogson-ek zioenez berrargitarapen honek hutsak zituen jatorrizkoak ez zituenak alegia , eta jatorrizkoak era bazituen Manuel Larramendik ohartu zuen bezala. Edizio faksimila Alfonso Irigoyeni zor diogu "Refranes y sentencias" *La Gran Enciclopedia Vasca* tomo X 616-682 pp.

(8) *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance. Réédités d'après l'unicum de 1596 conservé à la Bibliothèque de Darmstadt, par W. J. Van Eys*. Genève et Bale: Georget Cie, 1896 [64] pp. 21 cms.

(9) Mende honen hasieran, 1905ean, Bilbaon egin zen beste edizio bat ortografia egunaturik. Ez dakigu zergatik dagoen errefracuaren ordena aldatu. Edizio honek ez du ia inolako interesik hizkuntza eta errefracuaren ikerlarietzat. Titulu bera du baina ez dakigu nork egin zuen edizio hau. Azkuek bere Mrofologia vasca liburuan edizio honen kontra gogor hitz egiten du, eta arrazoiz gainera. *Refranes y sentencias comunes en bascuence declaradas en romance con nú-*

eta gogo onez hartu zuten aurkikunde hau, zeren uste baitzen Larramendik bere hiztegiaren eranskinean (11) aipatzen zuen errefrau-bilduma hura galdua zela. Van Eys-ek berak bere sarrera laburrean dio bere aurkikunde baina lehen inork ere ez duela aipatzen errefrau-bildumatxo (12). Van Eys-ek egin zuen Jinebra, edo nahiago bada, Belgikako berrargitarapena ale gutxikoa zen, ehun baino ez (Tiré à cent exemplaires) eta garestia, eta, lortzen zaila izan zen irakurle euskaldun interesatuentzat. Garai haietan Azkuek Bilbaon aldizkari bat sortu zuen dena euskaraz oratua *Euskalzale* izena izango zuena, eta lehen zenbakietan *esakunak* izenburupean RS ko errefrauak argitaratzen hasi zen (13)

meros sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas. Bilbao: J. Astuy, 1905 (79 pp., 21 cms)

(10) Baditugu zenbait artikulua, garrantzizkoena hauxe date Julien VINSON "Le premier recueil de proverbes basques imprimé connu (Pampelune, 1596) in *Revue de Linguistique et Philologie Comparé*, 1896, XXIX, 201-218 or. eta beste bi Dogson-enak berrargitarapenaren hutsak kritikatzu Dogson, Edward. Spencer.: "The basque proverbs of the year 1596 in *Academy*, 1896 (july 18), 51 eta *Dana danean eta dana danegino. Indice de las 254 formas verbales empleadas en el libro intitulado "Refranes y Sentencias"*, Bayonne, 1896. y "El incunable heuskerico" in *El Noticiero bilbaíno* Enero 8 de 1906

(11) Larramendik bere *Suplemento* edo eranskinaren azkenalderantz, *Diccionario trilingue* bigarren liburukian, San Sebastian 1745, honelaxe dio: "Al acabarse la impression del Diccionario, me embia el Padre Agustin de Cardaveraz, de nuestra Compania, un Quaderno viejo, que le ha avido à las manos, andando en Misiones en Biscaya. Esta impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasidamente à la letra. Faltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimio. Las páginas están en dos comunas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, a quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas Lenguas estan apuntadas con numeros iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanas, paraque nadie pueda equivocarse en su explicacion por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domina este ultimo. En la ortographia tiene sus erratas, porque son conocidas y no causan confusion. Las paginas legibles son setenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo comun no están eneste Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanos..."

(12) Avant-Propos:

Le recueil de proverbes basques-espagnols, que nous avons reproduit fidèlement que possible d'après l'original unique, se trouve à la bibliothèque Grand-Ducale de Darmstadt. La dernière correction sur l'original, a été faite par M. le Dr Voltz, auquel nous témoignons ici notre plus vive reconnaissance, grâce à lui le lecteur aura en main la reproduction exacte d'un petit volume aussi rare que précieux; nous croyons pouvoir dire qu'il est entièrement inconnu; personne jusqu'ici rien a jamais fait mention.

Le dialecte est celui de Guipuzcoa légèrement influencé de Biscaïen. C'est la première fois que nous rencontrons, dans ce dialecte, l'emploi du verbe à la 2^e me personne du singulier.

(13) Azkuek bere aldizkarian errefrauak jarri baino lehen irakurleari ondoko ohar hau egiten dio (*Euskalzale* 1897 IV geia 28or): Igaz irureun urte argitaratu zan Iruñan liburu eder bat, *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance* izentzat daukana. Bizkaitarrez eskutiztuta dago. Berba banakaren batzuk ez dira gaur esaten; baina ikastetseak sortuten Iaungoikoak itxi nai izanezkerok, oituko dira. Beste berba batzuk gaur ez dira Bizkaian entzuten, Lapurdialdean baino. Onek bere ederto oitu leikez. Liburu eder au agortu aginik egon da. Darmstadt-ko Liburutegian bakar bat egoan. Van-Eys-ek birregin da igaz barriro argitatatu eban. Eztakit zelan ordaindu ginaion euskaldunok euskalzale iakintsu ta errime oni, guri egin dauskun meedea. Esku gitxitara eldu leike liburu au; batetik moldaldi laburra egin dalako, bestetik nai litzakean baizen merkea ezalako. Onegaitik EUSKALZALEK irakurleai erakutsi nai dautse. Onetarako, eskutiz-

Aldizkari gehiagotan ere agertu ziren RSko errefrauak, mugaz haraindiko *Es-kualduna* aldizkarian ere agertu baitziren. Azkuek egindako errefrauen edizioak ere grafiaren gaurkotzeaz landa gaztelania eta frantses-itzulpenez gaineratua egon zen. Horrezaz gainera zenbait errefrauri iruzkin txiki batzuk ere eskeini zizkion. Esan behar da lekeitiarrak ez zituela errefrau guztiak argitaratu: 317 garrenerraino iritsi zen. Zerrendako errefrau bat ere itzuri egin zitzaion edo jan egiten du: 206-Goseac jolasic ez tu Jan berariaz jarri dugu, gose-kontua agertzen baita errefrau horretan (14). Azkue artean gaztea zen, hogetamairu urte besterik ez zituen, eta Azkueren iruzkinak ez ziren gerora *Euskara osotua* eta abarretan errefrauen gainean egingo zituen bezain aberatsak. Azkueren aldizkari barruko edizio hau ere gogor kritikatu zuen Dogsonek (15)

Beharrezkoa dugu azpimarratzea, behin honetarako gero, 539 errefrauak zerrenda luzeago bati dagozkionak direla, bestela esan, guganaino iritsi diren 539 errefrauak ez dira sail handiago batetik ezagutzen ditugun aleak baino. Baiztapen honetatik hainbat galdera sortzen dira, zenbat errefrau ziren guztira? *Unicum* horretan agertzen direnez landa ezagutzen dugu besterik? Lehen galderak ez du erantzun zehatzik eta bego beraz galderan. Bigarren galderari erantzuteko baditugu zenbait garbitasun. Batetik Larramendiren *Suplemento* edo eranski-nean agertzen den RSko errefrau ezagutzen dugu, *niño* hitzean *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da*. Kardaberazek Larramendiri eman zion kuadernoa da beraz RSko parte galduari dagokiona. Baeiztapen hau gorago agertu dugun errefrauetik ezezik hiztegiaren berean sartu zituen hitzetatik ere atera daiteke. Hor dugu, esaterako, *oparina* “necesidad” hitza, eta baita Iruñeko edizioan agertzen ez diren Bizkaiko hitz zahar gehiago ere. Beste zenbait errefrau Oihenarten paperetan aurkitu ziren eta Mitxelena *Textos arcáicos vascos* liburuan agertu zituen (16).

kera (ortografia) zaarra ta guttiz txarra, barriraztuta agertuko dogu.

Urrengo geitik asiko gara esakune onek mortxaka txikietan argitaratuten. Gaztelarrez da prantzesez biurtoa doguz, eta esakune bakoitzai azalgeta labor bat geituko iako.

(14) AZCUE, R. M.: “*Esakuneak*” in *Euskalzale. Astean asteango albistaria*, 1897, I, (traduc. Vascófilo, revista semanal) 37-38, 44, 53-54, 63, 72, 79-80, 87, 94-95, 119, 135-136, 158-159, 164-165, 175-176, 191-192, 199, 207-208, 223-224, 232, 278-279, 286-287, 310-311, 318, 334, 352, 360, 367-368, 375, 422.

(15) *El Noticiero bilbaino* “Pues resulta que la edición de Ginebra 1896 es bastante incorrecto, como lo es tambien la de don R. M. Azkue en el “*Euskalzale*” aumentada con una traducción francesa no completamente verdadera. No entro en todas las pequeñas variantes tipográficas”

(16) Hauexek dira errefrauak: 540 Ynardun badaguic, ez doc ue(a)r besterenic. Si continuas en el trabajo, no tienes necesidad de otro. 541 Ojal ona huchan saldu doa. 542. Urrineric ospea, erricoa obea. 543. Saldubaga altamia, ozal[.Jan ez dilist[.]ia. 544. Huhufierean hoxtuac bulea. 545. Otu doneari ygarartean nequea. 546. Guiçon onac azcurriac bere. 547. Ecandu gasstoari bernea ausi. 548. Barria eder eguic. 549. Maya ta vide lucea, gastigaturic (enseñança)550. Jaunen hotua oy da aguiindua. 551. Emazte dollorren jaubea, jopu. 552. Maiaz onac dacaz pozac. 553. Garrastu adi icasterren ta neca adi euteren. Suffre por aprender y trabaja por tener. 554. Bere burhua ezautea da jaquitea. 555. Gastelauna neguia senar, ofiean arr ta beguien negar. 556. Esquerrac yndauz ce on dexta ene gaucary. 557. Ene laba aldian labe(a) jausico zan. 558. Ylbeeran ereyn ceguic

Errefrauen euskalkia dela eta

Uste baino gehiago hitz egin da errefrauen euskalkiaz eta uste baino eztabaida gehiago daude. Has gaitezen Larramendigandik: “El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domina este ultimo” esan zuen andoaindarrak. Van Eys-ek esan zuen gipuzkera zela bizkaierak apur bat ukitua (Le dialecte est celui de Guipuzcoa légèrement influencé de Biscaien). Dogsonek Van Eys-i gogor jazarri zion esanez umegorri batek ere ikus dezakeela ia bere osoan dela Bizkaiko euskera eta ez Gipuzkoako euskara Bizkaikoak apur bat ukiturik (The dialect of these proverbs is, as any Basque child can see, almost entirely Biscayan, not Guipuzcoan légèrement influencé de Biscaien as the editor says) (17). Vinsonek nahasi xamar zegoen mataza gehiago nahastu zuen. Gehienbat gipuzkera zela esan zuen, baina Bizkaiko hitz asko eta asko zeudela, ugari zirela iparraldeko goinafarrerakoak eta zenbait behe nafarrera ekialdekoak (Ces proverbes appartiennent principalement au dialect guipuzcoan; il en a cependant un assez grand nombre en biscayen, plusieurs en haut navarrais septentrional et quelques-uns en haut navarrais méridional caractérisé notamment par l’absence de n final aux imparfaits (18). Eztabaida hau gaur egunera arte ere ekarri daiteke Villasantek, esaterako, dio bizkaiera dela gipuzperaren eraginaz(el dialecto en que están escritos es vizcaíno , con cierta influencia guipuzcoana) (19) Gaur egun , gehienbat, bizkaiera arkaikoa dela esan ohi da, eta, beste zehaztasun batez, vizcaíno meridional edo eguerdialdekoa. Urquixo batez ere Orozko aldeko errefrauekin erkatzen ahalgindu zen, nahiz eta garbiki Orozkoaldeko jatorri nagusia ez baieztatu.

Errefrauen egilea eta iturriak

Refranes y Sentencias liburuaren egilearen izenik ez dugu ezagutzen. Behin hau esanez gero bi galdera sortzen dira. Ez dugu ezagutzen liburuaren hasera-amaierak falta ditugulako eta egilearen izena han etorri behar zuelako? Ez dugu ezagutzen egileak bere burua agertu ez zuelako, hots, anonimoa delako? Liburu osoa ezagutzen ez delako kontua argia da. Liburuko errefrauek zenbakiturik daude baina ez edizioan hala agertzen delako, gerora argigarri moduan zenbakitu direlako baizik. Liburuia nondik den beraz osatugabea ez dakigu hasieratik erditik edo dena den lekutik. Liburuaren azala badugula argi dago behintzat, bestela ez genuke jakingo izenburua bera ere.

arean. 559. Onerextea dodan lecuan jarri daquidala egusquia. 560. Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d(o)a. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta.

Bi lekutatik atera daitezke errefrau hauek lehen iturria MICHELENA, Luis: “De paremiología vasca. Oihenart conoció los Refranes y Sentencias en Vascuence en ¡596” ASJU 1967 1-44or. eta *Textos arcáicos vascos*174-176 or.

(17) DOGSON, Edward Espencer: *Academy Egunkarian*1896

(18) VINSON Julien: *Bibliographie de la langue Basque*, 530 or.

(19) VILLASANTE, Luis: *Historia de la literatura vasca* 61 or.

Egilerik agertzen ez denez gero anonimotzat hartzen da. Horrelako kon-
tuak ez dira gure artean bakarrik gertatzen. Hor dugu, esaterako, liburu labur
bezain zoragari bat *Refranes Glosados* 1545 urtekoa, anonimoa dena. Egilerik
ezagutzen ez denez gero Urkijok pentsatu zuen egilea Esteban Garibai izan
zitekeela. Uste honen indargarri bost arrazoi eman zituen bere lan batean (20)
guk hona leku faltaz aldatuko ez ditugunak.

Iturriez denaz bezainbatean badugu hemen zeresanik. Gorago esan bezala,
liburuaren izenburua garai beretsuko eta lehenagoko errefrau-bildumak izan-
datzen ziren bezala oraturik dago. Horrek esan nahi du biltzaileak ezagutzen
zituela Gaztelerrian behintzat argitara eman ziren errefrau-bildumak. Julio Ur-
kixok uste zuen errefrau asko eta asko Hernan Nuñez-en bildumatik itzuliak
zirela eta are Frantziako bildumetatik. Badago kontu harrigarriagorik ere ho-
netan, zeren ikertzaile deustuarrak uste baitzuen zenbait itzulpen txarto edo na-
rратx eginak zirela. Esaterako, Goldearen amorecati pot nabarrari erdarazko Por
amor del buey, el lobo el arado lame delakoaren itzulpen narratxa zela uste
zuen (21).

Urkixoren arabera ia gehiena itzulia zela bazioen, zer zen euskal-althorrari
zegokiona? Euskaldunen Erdi aroko gerra odoltsuetarik atera ziren esaerak zi-
tuen jatorizat, ez itzultakotzat, esaterako, 404-Butroeco meniac gayti ez ys-
quilosay echi 92-Celangoada Butroe oroc daquie 167-Erioac ereçan Butroeco
alabea Plencian 270-Muxica arerioacaz aguica 273-Gaçean, gaçean, ta ez Ybar-
guengorean 284-Aramayo dabenac ezlemayo 88-Olaso guichibazuc ylaso.
Errefrau hauek bere testuinguru historikoan sartzen ahalegindu zen ahal ziren
datu historiko gehienez jantziz. Era berean, baziren ganboatar eta oinaztarren
arteko gerretarik urrun zeuden errefrauak ere. Hor dugu 187-Albia deunga duf-
tien abia. Esanak esan, Urkixok gaur egun “universal parimiológico” hitzaren
bidez izendatzen dena nolabait aurreikusi zuen, zeren, jatorriak jatorri, edo, itu-
rriak iturri, hizkuntza guztietako errefraueta dagoen nolabaiteko jakituria edo
mamia, hondarraren hondarrean antzerakoa, edo bat bera, zela pentsatzera iritsi
baitzen. Hori horrela onarturik ez legoke itzulpenaz hitz egiterik ezpada oinarri
oinarriko hizkuntza diferenteetako mamiaz (22).

(20) URQUIJO, Julio: “Los refranes vascos de Saugis” RIEV 1908, 677-724or. Arrazoiak
684-885 orrialdeetan aurki daitezke.

(21) Aipatu artikulu “Los refranes..” 690or. No me parece necesario alargar esta lista para
conseguir el objeto que me propongo: es decir, para demostrar que el autor de Refranes y Sen-
tencias conocía las colecciones de proverbios castellanos que se publicaron a principios del siglo
XVI. Sólo haré notar que hasta el refrán “*Goldearen amorecati pot nabarrari*” Por amor del arado
se besa la reja, que antes he citado, se me antoja una mala traducción del adagio español: *Por*
amor del buey, el lobo el arado lame. Descartados los proverbios traducidos del español o fran-
cés(...)

(22) URQUIJO, Julio: Aip. Lana RIEV 1908 “Los refranes vascos de Saugis” 687or. Cierta-
es, que tal vez pueda pensarse en alguna manera de los proverbios y dichos del pueblo, lo que
Webster opinaba de las leyendas populares: que los motivos o datos originales son casi siempre
los mismos en todas las lenguas y que las variaciones son a manera de los cambios y las varia-
ciones de las piezas de un kaleidoscopio. Y esto con tanta mayor razón, cuanto que nos consta

Garibai errefrau-biltzaile

Hamaseigarren mende akabuan baditugu beste errefrau-zerrenda bi esku beretikakoak. Bi zerrendok Esteban de Garibay y Zamalloa (1533-1599) historiadorearenak ditugu. Garibaik bere memorietan dio bi errefrau-zerrenda bidali zizkiola Juan de Idiaquez-i, Felipe II Estatu konseilukoari. Bi eskuizkribuok Madrilgo Biblioteca Naziolean aurkitzen ziren. Bata (G 139) kodizean zegoen eta bestea (Cc79) kodizean. Bi eskuizkribuak, esan dugun bezala, Madrilen zeuden, baina bati baino gehiagori harrigarri gerta badakio ere, eskuizkribuetariko bat, (Cc79) Kodizekoa, Benito Maestre liburuzainak erregalu eman zion Francisque Michel-i. Nola izan daiteke hori? Gu geu ere harri eta zurtz uzten gaitu, baina hori izan zen kontua, hala gertatu zen Francisque Michelek berak kontaktzen baitigu. Galdutzat eman beharko genuke erregalu emandako eskuikribu hori Francisque Michelek argitaratu ez balu Oihenart-en atsoitzen ondoren (23). Francisque Michel-en eskuetan zegoen Garibairen eskuizkribua ez da zorionez galdu Patri Urquizuk aspaldi ez duela Frantziako biblioteka batean aurkitu eta berrargitaratu baitu.

Garibairen bi errefrau-zerrendak itzulirik eta iruzkindurik agertzen zaizkigu. Alde honetatik *Refranes y sentencias* baino aberatsagoak dira, baina, bes-tetik, zerrenda bakoitzean agertzen diren errefrauak urriagoak dira. XIX garren mendean Jose Francisco Aizquibelek (1798-1865) Garibairen errefrauaren gainean egin zituen iruzkin edo azalpenak ez dira inolaz ere onak. Diogunaren berme, besteak beste direla, Villasante (24) edo Urkixoren iritziak (25) ikusi besterik ez dago.

Urkixo izan zen Garibairen errefrau-bildumen lehen ikerlaria. Urkixok zabaldu zuen gure artean paremiologia ikasketen arrastoa. Bera izan zen bideurratzaile eta aintzindari argi. Beraren lanek ez dute mundu zabaleko beste edozein paremiologo zehatz eta jakintsuren lanen lotsarik. Esan dezakegu heme-retzigarren mende hasera arteko errefrauaren gaineko lanak, gehienez ere, lan paremiografikoak izan zirela, hau da, bilketa hutsak, ahoz aho korritzen zuten

por las investigaciones de los eruditos nacionales y extranjeros, que muchos de los proverbios usados en las lenguas modernas proceden de los Libros Sagrados o son mera expresión de los pensamientos emitidos por los filósofos y poetas de Grecia y Roma.

(23) OIHENART, A.: *Proverbes basques... seconde édition, revue* [Francisque Michel], Bordeaux, 1847

(24) Hona hemen Villasanteren aipamen bat *Historia de la literatura vasca* 264 or. "Cuando en 1854 la Academia de la Historia publicó las Memorias de Garibay y los refranes de éste, Aizquibel fue encargado de hacer el comentario e interpretación que acompaña a dichos refranes. A la verdad, no salió muy airoso de este empeño. Aizquibel conocía bien la lengua vasca de su tiempo y aun la de los libros del siglo anterior; pero los refranes de Garibay representan un vascuence mucho más antiguo y bastante distinto del que era familiar a Aizquibel; por eso no es extraño que no siempre acierte a traducir bien los refranes, y, lo que es más grave, a veces se permite corregir el texto para adaptarlo a la intrepación que a él se le antoja más verosímil.

(25) Urkixok badu, esaterako, artikulutxo bat izenburua bere ere nahikoa adierazgarri dena "Una distracción de Aizquibel" Euskalerrriaren alde, 1916, VI, 732or.

errefrauak papereratzea, zerrendatzea, metatzea. Bilketa hauek, egia esan, zenbaitetan itzulpenez horniturik zeuden, eta, inoiz edo behin-oso bakanka bada ere, zoritxarrez-iruzkin laburrez jantzirik. Julio Urkixoren nahia euskaldunon errefrau-altxorra ezagutaratzea izan zen. Euskal errefrau-bilduma zaharrak ez ziren gehiegi, ia eskuko hatzamarrekin kontatzeko heinekoak, hemeretzigarren mendean, ostera, bildumak ugaritu ziren nahiz bilduma bakoitzeko aleak hain ugari ez izan. Urkixok errefrau-bilduma zaharrak ikertu, zertzelada historikoez hornitu eta errefrau bakoitza Europako hizkuntzetako beste errefrauekin balio-kideak aurkitzen saiatu zen. Urkixorekin hasi ziren, beraz, lan paremiologi-koak. Lan paremiologikoa bere neurri onean egiteko, eta behar bezala burutan ateratzeko, beharrezkoak dira alde zurretik lan paremiografikoak eginak izate, oinarria sendo izatea. Beste hizkuntzetako bidea ere halaxe izan da. Urkixok asmoera hori buruan zuela, errefrau-bilduma bakoitzeko liburu monografikoa atera asmo zuen, horrelaxe zabaldu zuen errefrau-ikerketara sail eder bat *El refranero vasco* epigrafearen azpian. Horrelaxe hasi zen Zalgizekoaren bildumarekin (26) eta Garibairi aparteko edizio bat eskeini zion (27). Bidea behin ondo markaturik zuela, dugun lan paremiografikorik zaharrenari, *Refranes y Sentencias*-i, lan paremiologikorik handiena -guk hemen zirriboratu dugun terminologia erabiltzea zilegi bazaigu (28)-eskeini nahi izan zion. Ikertzaile deustuarrek bere RIEV aldizkarian ia hogetabi urtez iruzkindu zituen *Refranes y Sentencias* liburuko 539 aleak baina Garibairen bildumarekin bezala ez zuen liburu bakar batean atera (29).

Garibairen errefrauak beren hiztegi, zertzelada egoki eta abarrez horniturik lan eder bat argitaratu zuten Jose Ramon Zubiaurrek eta Jesus Arzamendik (30). Garibairen errefrauen ezaugarri nagusia herri-herrikoak izatean datza. Mondragoarrak bildu zituen esaera zaharretan ez dago itzulpenaren duda arrastorik ere, denak dira ahotik harakoak, hamaseigarren mendean euskaldunek beren esanak gatz-ozpintzeko erabiltzen zituzten urregorritzko aleak. Errefrauak

(26) URQUIJO, Julio: "Euskaldunen Erran Çaharrac Beltran Salguis Nafarroa Beherecoa Gorte guchienean Erregueren Conseillari denaren arthas bilduac" in RIEV 1908, 706-722 or.

(27) URQUIJO, Julio: "El refranero vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay, San Sebastian, 1919.

(28) Guk darabilgun terminologia hau besteren lanetatik geuretua da. Irakurleak jakin nahi badu nondikoa den hona hemen iturria: SEVILLA MUÑOZ, Julia: *Hacia una aproximación conceptual de las paremias francesas y españolas* Editorial Complutense Madrid 1988.

(29) URQUIJO, Julio: "Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo", RIEV, 1911, V, 375-401, 581-589; 1912, VI, 230-234; 1913, VII, 60-66, 438-470; 1914-1917, VIII, 17, 50, 230-266; 1928, XIX, 548-563; 1929, XX, 45-46, 212-217; 1930, XXI, 166-177; 1931, XXII, 74-81, 531-541; 1932, XXIII, 35-45, 264-288, 522-545; 1933, XXIV, 39-59. Lan honen zati bat bi liburutan bildu zen *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596 I y II* liburua *Añamendi* n.º 40 y 55, 64 y 67 urteak. Lehen liburua Koldo Mitxelenaen aitinsolas argi eta zehatza dakar. Bi liburuek ez dute biltzen Urkixok *Revista Internacional* delakoan iruzkindu zituen errefrau guztiak. Uste izatekoa da liburu argitaratzaileek hirugarren liburuki bat ere argitaratu asmo zutela zeren bigarren liburua azken errefrau iruzkindua 394 a baita.

(30) ZUBIAUR J.R. & ARZAMENDI J.: "El léxico vasco de los refranes de Garibay" in ASJU X, 1976, 47-144or.

iruzkin gabe baleude ere aho-kutsu nabarmen hori ezin utzizko tasuna litzateke, zalantzarik gabe. Errefrau-ale bakoitza iruzkin labur baina egokiz jantzirik gugana iristean benetasun-froga horrek zehaztasunean irabazten du.

Orain arte, handi-handika bada ere, iruzkindu ditugun RS eta Garibairen bildumek badute elkarren arteko antzekotasunik eta are bateratasunik ere. Bilduma biak dira XVI mende bukaerakoak, are gehiago, XVI mendeko azken hamar urteetakoak. Errefrauen euskera nagusiki bizkaiera ez dela ezin uka. Nahiz eta, gure uste apalean, ez Bizkaiko euskera bera izan. *Refranes y Sentencias*-koa Bilbo aldekoagoa da, mendebal aldekoagoa eta bestea sortaldekoagoa, Bizkaiko euskera egiten den Gipuzkoakoa, Arrasate edo Mondragoe ingurukoa. Arrazoi guzti hauek kontutan harturik Urkixok, gorago esan bezala, hipotesi bat luzatu zuen gehiegizko indarrrik egin gabe, edo goitik behera indarka ezarri nahi gabe. Mitxelenak ere ez zuen erabat bere egin Urkixoren hipotesia (no pasa de ser una mera posibilidad) (31). Urkixok agertu zuen hipotesiari zehaztasun eta ñabardura ugari erantsi zizkion, gure artean, J.A. Lakarrak (32).

Gakizkion aurrera eta esan ditzagun Garibairen bildumen zehaztasun zenbait. Arrasatearraren bi bildumak, guk besteak bezala, A eta B izendatuko ditugunak, guztira edo guztitara 118 errefrauz osatuak dira. A delakoak 54 eta B delakoak 64. Lehena A deitua, (G 139) kodizekoa da, eta, bigarrena, B deitua Francisque Michel-ek argitaratua (Cc 79) kodizeari zegokion. Bilduma bi haucetan 37 errefrau agertzen dira errepikaturik (33). Bi bildumok, *Refranes*-ekin gertatzen den bezala, ezosoak edo oso-osorik guganaino iritsi ez diren bildumak dira. Alda dezadan adibide gisa errepikatutako ale bat edo beste:

A 1: “Por los que comiençan a trabajar, quando auian de descansar en la senectú, dizen:

Echera orduan basora

A la hora boluer a casa yr al monte”

B 29: “Por los hombres que fueron ociosos en su juventud, y quieren trabajar en la vejez, quando auian de descansar, dizen:

(31) Aipatu lana. MITXELENA, Luis: “Preamble” in *El Refranero Vasco. Los Refranes y sentencias de 1596*. Esta colección no lleva nombre de editor [R SJJ. de Urquijo sugirió que ésta podía ser una de las mencionadas por Garibay. La atribución, aparte de que la variedad dialectal no difiere de la de las dos colecciones manuscritas, se funda en que el número de proverbios que tiene en común con éstas es sumamente reducido, lo que resulta difícil de explicar en el supuesto de que ambas compilaciones fueren independientes. Se trataría en este caso, que no pasa de ser una mera posibilidad, de una de las dos colecciones enviadas por el mondragonés a Idiaquez y publicada por éste o por alguno de sus herederos.

(32) LAKARRA, J.A.: “XVI. Mendeko bizkaierazko errefrauez; I. Garibairen bildumak” in ASJU XX-1 1986, 31-65or.

(33) Zeintzu diren A eta B bildumetan errepikaturik agertzen direnak jakiteko, zein bilduma batetik bestera dagoen euskeraren ñabardurez ohartzeko jo beza irakurleak aipatu Lakarraren artikulura. Bilduma bata giputzago dela edo, gipuzkeratik hurbilago dela, ezin uka. Hitzen zein egituren ñabardurak hemen ezin ditugu jarri.

“Bolber a la hora del monte al

Etorri ordu-an vaso-ra

Como quien dize: Ba al monte, quando avia de volver dél”

Ikusten den bezala errefrauaren aurreko iruzkinak errefrauaren berri ematen du, eta itzulpena askotan sintaktikoa da, ez hitz hitzekoa, horrelaxe datoz vaso-ra /monte al bezalako bihurpenak. RS bilduman itzulpena hitzez hitzekoa da baina euskal errefrauaren hitz bakoitzeko zenbaki bakoitza erdarazko hitz bakoitzeko esangurari dagokiola dago.

XVII MENDEA

Ikusi dugu XVI mendeko errefrau-bildumak mendebaldeko euskalkiari dagozkiola, ez gara orain zein bizkaiera-moduri dagozkion azaltzen hasiko, uste baino zailtasun gehiago ekarriko bailiguke zehaztasun horrek. XVII garren mendeko biltzailerik garrantzizkoenak euskalkirik sortaldekoenak edo ekialdekoenak dira. Mintza gaitezen, beraz, Arnald Oihenartez (1592-1667). Biltzaile honen lanean murgiltzeko, aipa dezagun Paris-en, XVII mende erditsutan argitara zen lan batez *Les Proverbes Basques recueillis par Sr. d'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur*, Paris 1657. Lan honek errefrau-bilduma bat dakar bere golkoan (*Proverbes Basques recueillis par Sr. d'Oihenart*) eta olerki zenbait ere bai (*plus les poesies basques du mesme auteur*). Euskarazko errefrau-bildumarik ederrenetakoa dugu. Lehengo terminologiara itzuliz, euskaraz dugun lan paremiografikorik handienetakoa dugula ezin uka, 537 errefrau baitakartza aldamenean frantses-itzulpena duela. Errefrau-ale guztiak abezkiro ordenaturik daude, lehen esan dugun bezala, itzulpena aldamenean dutela. Itzulpenaz denaz bezainbatean, esan beharra dugu ez dela, zorionez, kasu guztietan hitzez hitzeko itzulpena. Zorionez diogu zeren itzulpena izan beharrean zenbaitetan moldapena edo itzulpen luzexeagoa denean, errefrauaren zentzuaz ohartzen gara. Eman dezagun, adibidez, kasu bat:

32-Arima onari euri. Le temps pluieux, *en la mort de quelqn'vn*, es le figne d'vne bonne ame.

Errefrau hau hitzez hitz itzuli balu nekez ulertuko genuke, hiru hitzeko errefrau labur bat baita. Euskal bildumetan agertzen diren antzeko errefrauekin erkatuz jakingo, edo beharbada asmatuko genuke, XVII mendean errefrau horren bidez ulertzen zena. Azkueren bilduman agertzen dira antzerakoak eta euskal sineste, eta are Europa osoko zenbait lekutako sineste baten berri dakar. Norbait hil ondoren arima zeruraten dela adierazten du, arima ona izan dela, alegia. Arima txarra izan bada, hots, pertsona gaiztoa izan bada *haizea* egiten du, ona izan bada, *euria*. Zehaztasun horiek azpimarraturik dagoen *en la mort de quelqn'vn* delakotik atera daitezke. Erdal itzulpena, edo nahiago bada fran-

tses itzulpena, beraz, luzeagoa da euskarazko errefrau-aleari hitzez hitz dago-kiona baino, zeren errefrau asko eta asko oso laburrak baitira. Badira bi hitzeko errefrau zenbait ere Haritchelharrek egin duen lan polit baten azaltzen den bezala.

Zenbait errefrauak, edo Oihenartek berak zioen bezala, zenbait atsotitzek badute euskarazko iruzkina ere. Iruzkin horrek, zer esanik ez dago, asko aberasten du errefrau. Errefrau guztiek iruzkina balute askozaz ere bilduma aberatsagoa izango litzateke. Eman ditzagun, kasurako, hiru adibide:

367. Ongui eguiten duenac bilaunari, bere onguia du efteialzen, eta escarnio eguiten capareari. *Kapare da bilaun estena, es eta xoil aitoren feme, baina bien arteco, Efpagnan hidalgoa den besala.*

372. Orhico xoria Orhin laket. *Orhi da Bortuetan mendi gorabat, Nafarroa elgataco, eta Suberoaco mugan.*

373 *Orhin* ekhia bero. *Ihardefpena.* Han isanic hona nis. *Noispait atsotiz hau offoric erraiten sen, bana orai esta ihardefpena baici erraiten; eta haren erran-lekua da, nois ere norbait oharzen baita berzebatec, enganazecozat, serbait eragin nahi diola; seren atsoen errana da; behiala, hegastiac minso sirenean, xoribat neguan hozes-hila habiabat arrimatu sela, eta hura berze xorribates hartua edirenic, haren hantic ateraceco, Finhets araci nahi vken siola, Orhin ekia bero sela; ordea berzeac haren mina esagaturic, inhardetsi siola, basaquiela Orhico-berri, esi hantic etorri-berri sela.*

Hona aldatu ditugun errefrauak iruzkin argigarri bat dute, nahiz eta 372 bezalako errefrauak ezagun baino ezagunagoak izan Oihenarteren garaian ezeze baita gaur egunean ere. Beste zenbait adibidetan, 367ean, esaterako, XVII mendeko gizarte mailen berri ematen zaigu. Ipuin labur bat osorik ere agertzen da 373ean bere sarrera-formula eta guzti (*behiala, egastiac minso sirenean*). Euskal literaturan agertzen den herri -puin zaharrenaren testigantza (testigantzarik zaharrena ez ipuinik zaharrena, jakina) ere ematen digu bide batez errefrauak. Badu gainera testuingurua adierazteko hitz jator bat, *erran-lekua*, alegia. Errefrauak ez baitira noiznahi solasean zirtakatzen edo txertatzen solasak eskatzen edo agintzen duen leku egokian baizik. Adibide hauek izan bitez Oihenarten bildumaren zer-nolakoen adierazpenaren argigarri.

Oihenartez esan dezagun Maulen jaio zela, abokatua izan zela ogibidez. Formazio unibersitarioduna, beraz, eta beste gauza askoren artean latinez idatzi zuen historiadorea. Errefrau-bilduma argitara baino lehen latinez idatzi zuen Euskal Herriko historiaz *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae...*, Paris, 1638. Jakintsuek diotenez, gu honetan ez gara sartuko, Oihenart historiadorea gora handikoagoa de Oihenart paremiologoa (34) baino. Historia liburu honetan ere lau errefrau txertatzen ditu:

(34) Hemen guk erabili dugun terminologiaren arauera paremiografoa esango genuke baina

Erroya has ezac,-Beguiac dedezac. Cria cuervo, sacar te ha el ojo. *Maiaz eurite,-Urte oguite.* Agua de mayo, pan para todo el año. *Edale-huna-chapachar-duna.* Debajo de mala capa hay buen bebedor. *Usqui maite-Higun Elaite.* Culos conocidos a cabo de cien años son amigos.

Lau errefrau hauetatik lehen biak bere *Proverbes Basques* liburuan dakartza 152 eta 308 zenbakietan, eta beste gainerako bien iturri bakarra, ordea, aipatu historia-liburua dugu (35). Gauzak horretara, Gustave Brunet-ek aurkitu zuen Parisko Biblioteka Nazionalean 170 errefrauiko Oihenarten beraren gehigarri bat. Gehigarri hau argitaratu zuen Archu-ren laguntzaz 1859an. Esan daiteke, beraz, Oihenarten bildumak bi zati nagusi dituela 537ko lehen errefrau bilduma, eta 170 errefrauiko gehigarria (36). Geure errefrau-bildumen ibilbidean bidezati hau eginez gero, egin dezagun kera edo geldialditxo bat eta lot ditzagun orain arteko bildumen berri guztiak. Bilduma nagusiak, XVI-XVII mendeetakoak, *Refranes y Sentencias* eta *Proverbes Basques* dira. Lehenak 539 ale ditu baina errepikatu gabe 536, Oihenartenak, ostera, eranskinik gabe, 537 ditu. Horrezaz gainera, *grosso modo*, bi ertz euskalkietako biltzaileek eratu da. Behin honetaraz gero zenbait galdera egin daitezke. Ezagutu ote zituen Oihenartek *Refranes*-ko bilduma? Dogson-ek (37) baietz esan zuen eta Vinson-ek (38), ostera, ezetz. Dogsonek errefrau-ale zenbaiten antzekotasunak eragindako eritzia azaldu zuen. Zeren uste zuen mauletarrak *Refranes*-ko zenbait ale apur bat ukiturik txertatu zituela bere bilduman. Vinson-ek antzekotasun horiek

hitz hau nekezago erabili denez guk oraingoz lan paremiografikoak eta lan paremiologikoak erabiltzeko bakarrik erabiliko ditugu. Gauza bera egiten da beste zenbait disziplinan, esaterako, lan etnografikoa esaten da kultura bati dagozkion ohitura, sineskera eta abarren bilketa huts edo soilari, eta lan etnologikoa bildu denaren gainean egiten diren lanei. Guk hemen eman dugun zehaztasun oinok badituzke mila xehetasun egin beharrekoak. Kontua ez da zer den Etnografia eta Etnologia oin-ohar honetan zehaztea zein antzekotasun dagoen guri dagokigun Paremiografia eta Paremiologia terminoen artean.

(35) Nik lantxo honerako Javier Gorrosteratzuk Eusko Ikaskuntzaren bidez argitaratutako liburua erabili dut, San Sebastian 1929, 41or.

(36) Egia esan Oihenarten bilduma eranskin edo gehigarri osatua da. Esaterako behin 482 errefrauaz gero agertzen da lehen eranskina *Atso-tizen emendioa* delakoa, itzulpenean *Addition de proverbes* dakarrena. Emendio hori 509-rainokoa da. Behin errefrau horren ondoren beste gehigarribat agertzen da *Atfotizen berze emendioa* eta frantsesezko itzulpena *Autre supplément de Proverbes*.. Azkena markatzeko *Vrhenzea* dakar. Hitz honezaz baliatu ziren beste hitz bat sortzeko Brunet-ek aurkitu zuen 170 errefrauiko gehigarriaren txertaketa izen datzeko *Vrrhenquina* delakoa. Nik uste Archu zuberotarraren asmaketa bat izango zela. Errefrau hauen sail berria esan dugunez 537-tik 706-rainokoa da.

(37) Aipatu artikulua "The Basque proverbs of the year 1596" in Academy, 1896 (july 18) We notice that Oihenart (1657) has taken some of them; that some are virtually repented within the quaint Navarrese booklet itself; that three relate to the beautiful, legendary, never finished Chateau of Butron, hidden in the forest near Urduliz on the coast of Biscaya, now accessible by train from Bilbao; that two at least have found their way into Aizkibel as quotations.. It is likely that many others, even if never since reprinted, wilt turn out to be yet alive, hovering in the memory of the Basque rustics in Spain.

(38) Aip. lana Bibliographie de la langue basque 530 or. Il est remarquable que Oihenart n'aït pas connu ce livre; il paraît ne lui avoir fait aucun emprunt.

zeudela jakin arren euskal erretrauek, altxor komun baten sabelean dauden neurrian, duten antzekotasun eta are berdintasunak bere-berezko zirela uste zuen. Horrezaz gainera Vinson bera izan zen erretrau baliokideak markatu zituen eta ez Dogson. Vinsonek, beraz, beste erizpide batekin jokatu zuen, Oihenartek bere idazlan argitaratuetan *Refranes* aipatzen ez zuenez gero ez zuela ezagutzen idatzi baitzuen.

Auzi honetan denborak Dogson-i eman dio arrazoia, ez erabili zuen erizpideak oinarri sendoa zuelako, bestelako arrazoiengatik baizik. Urkixok zituen Oihenarten eskuizkribu zenbait, gorago esan dugunez, Mitxelenak argitara eman zituen artikulu batean. Eskuizkribu horietan agertzen dira, besteak beste direla, *Refranes* liburuan agertzen diren hemezortzi erretrau(299-306) eta (327-336) eta liburu bera jatorri duten beste hogeitasei (307-326). Larramendiren eranskinetako beste alea gehitzen bada *Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d(o)a* gutzira hogeitabat erretrau gehi dakizkioke ezagutzen diren 539ri, beraz, 560ko kopurua osa daiteke.

Hona Vinson-ek aurkitu eta bere artikuluan (39) agertu zituen erretrau baliokideak:

RS 56 *Ylac ta biciac diraqui*. El morir el biuir hierue. RS 146 *Hodolac fu бага diraqui*. La fangre fin fuego hierue. Oih 342 *Odolac su gabe diraqi* Le sang bout sans feu.

RS 52 *Unayoc arri citean-gaftaeoc aguir citean*. Los Paftores riñieron, los quesos pafieron. RS 386 *Arzayoc arricitea gaztaeoc-euguircitea*. Riñieronse los pastores de ouejas y parecieron los quesos. Oih 10 *Aharra ziten alxonac-aguer ziten gazna ohoiñac*. Les valets du (berger) se querellèrent-et les voleurs de fromages se découvrirent.

RS 133 *Atean vfo echean ocshfo-ala viciquidea gafo*. Fuera de cafa paloma en cafa lobo-tal manera de viuir malo. Oih 107 *Campoan urso, exean bele*. Au dehors colombe, a la maison corbeau.

RS 136 *Az ezac eroya, dirata beguia-ta mutil guextoac quendu deyque arguia*. Cria al cueruo, facarteha el ojo-y quitar te ha la luz elmal moço. Oih152 *Erroya has ezac-beguiac dedetzac*. Nourris le corbeau, il te crève les yeux.

RS 294 *Iayguicidi naguia-erracizan vria*. Luantose el perezoso-y quemo la villa. Oihe 257 *Iaki zedin naguia suaren piztera ezar zezan exea erratzera*. Le paresseux se leva pour allumer le feu, il mit la maison à bruûler.

RS 419 *Perrau neuen gogoa-axeac bestera naroa*. Hermitaño tuue el pensamiento-a otra parte me lleua el viento. Oihe 530 *Seroretara sautan gogoa-*

(39) Artikulua Vinson-ek bere aldizkarian agertu zuen Revue.. "Le premier recueil de proverbes basques imprimé connu [Pampelune] lehenago ere aipatu dugu artikulu hau.

esteietan aiceac naroo. La pensée m'était aux religieuses.-le vent me porte dans les noces.

RS 422 *Ausso Chordon arzorri-ta nic yñes daydan.* Ten Hordoño a esse osso-y yo hare huyda. Oihe 139 *Eneco axeca hi hartzari-nic demadan ihessari. Eneco,* attrape-toi á l'ours-que je me livre à la fuite.

RS 534 *Otorde dabil Mayaça su esque.* En trueq de pa fuego anda-Mayo a buscar. Oihen 348 *Otorde dabila Maiatza su esque.* Le mois de May est en queste de feu, en troc de pain.

Argi ikusten denez XVI-XVII mendeetako bilduma nagusiek badituzte errefrau baliokideak. Antzekotasun horrek eragin zion Dogson-i Oihenartek *Refranes*-eko aleak hartu eta bere bildumara aldatu zituela pentsatzera. Gauza bera egin daiteke beste bilduma batzuekin, esaterako, guk lantxo honetan jarritako Garibairen A-2 bat dator RS 294 delakoarekin. Oihenarten paperetan aurkitu ziren *Refranes* liburuko zati galduarekin eta mauletarrak *Proverbes* liburuan dakartzanekin ere badira bateratasunak:

RS 544 *Huhuñerean hoxtuac bulea.* Oih 354 *Ohoinari ebastea, da perdonansen irabastea.* Dérober aux larrons, c'est gagner les pardons.

RS 545 *Otu doneari ygarartean nequea.* Oih 662. *Othoi sainduari de-raunsano ekaizari.* Il prie le saint, tandis qu'il y a orage.

RS 550 *Jaunen hotua oy da aguindua.* Oih. 260 *Iaun handien otoia, esez errailen seha-doia.* La priere des grands, c'eft le lieu, là où les sefufans trouent les coups de bafton.

RS 556 *Esquerrac yndauz ce on dexta ene gauçary.* Oih 690. *Efkerrac istadan, seren neure hasiendari ondarizadan.* Sens moy bon grè, de ce que i'ay de mon bien.

RS 552 *Maiaz ozac dacaz pozac.* Oih 309 *Maiaza hoz, urtea boz.* May froid, l'année gaye.

Baliokide hauek Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* (40) liburutik hona aldatuak dira. Oihenarten errefrau bildumaz ere asko hitz egin da. Egin diren galderetariko bat da, esaterako, ea berak bakarrik bildu zituen herri-aleak edo laguntzaileak izan zituen. Badakigu bere bilduma argitaratu baino lehenagoko bildumak ezagutzen zituela ez *Refranes* bakarrik baita Jaques Bela (1586-1667) eta Bertrand Zalgizkoarena ere. Orain arte ez dugu ia ezer aipatu bi haueزاز eta bada ordu bi zuberotar haueزاز jakingari edo garbitasun batzuk emateko. Ohart gaitezen Jakes Bela eta Bertrand Zalgiz(e)koa zuberotarrak zirela Oihenart bezalaxe, eta, errefrau-bilduma apalak egin bazituzten ere- ezagutzen dugun Zalgizekoarena askozaz oparoagoa da Belarena baino- Oihenarten aintzin-

(40) MICHELENA, Luis: *Textos arcaicos vascos* Edición Minotauro Madrid 1964, 174-176 or. Oraindik aurrera, gure artean egin ohi den bezala, TAV izendatuko dugu.

dariak edo aurretikakoak izan zirela. Zalgiz(e)koaz (41) dakizkigun berriak Jaurgainek (42) eta Urkijok emanak dira. Honela laburbil daiteke: Jaurgainek Bertrand Zalgiz(e)koaren kahier eskuidatzi bat aurkitu eta Urjikori eman zion. Kahier eskuidatzi hori, erraz asma daitekeenez, errefrau-bilduma bat zen eta Urkijok bere aldizkarian argitara eman zuen (43), berak ohi zuenez, ohar idatziz apaindurik. Eskuidatzi hori, itxura guztien arauera, galdu egin da-edo galdutzat jo beharko dugu harik eta norbaitek aurkitu arte- ez baita Urkiroren paparetan aurkitzen. Zalgiz(e)koaren bilduma oso inportantea ez danik ezin uka 205 errefrau behintzat osatua baitago. Errefrau bilduma ederra izateaz landa badu beste aberastasun handi bat: zenbait errefrau euskaraz iruzkindurik ematea. Zalgiz(e)koaren errefrau iruzkinduak gehiago dira -proportzioan, eta proportzioaz landa ere bai-Oihenartek iruzkindu zituenak baino. Zalgizeko Bertrand zaldun hugonoteaz dakiguna da, bi hitzez adierazteko, poeta eta errefrau-biltzailea izan zela, eta, bi alorretan Oihenarten sustatzaile (44).

Oihenarten eta Bertrand Zalgizekoaren errefrauen artean ere bada antzekotasunik, bilduma biak leku -euskalki berekoak direla ez ahantzi-eta garaian hurbil baitaude.

Saugis 8 *Duianac acer, biper*: El que tiene berza, pimienta. Oih120 *Due-nac aser biper*: Yl n'y a que celui qui en a, qui mette du poivre sur les choux de son potage.

Sugis 9 *Oilo ebildaria, achiariac jaten du [acheriaren ianharria]*: La gallina andariega, el zorro la come. Oih. 358. *Oilo ebildari, axeriaren ianhari*. Poule promeneuse deuient la proye du renard.

Saugis 11 *Otsoa artzain*. El lobo pastor. Oih 382 *Otsoa arzain*. Le loup est le gardien des brebis.

Saugis 11 bis. *Otsoac eztu bera iduri meçuric*. El lobo no tiene recadista á su semejanza. Oih 387. *Otsoak estu caussizen mandatariric bere iduriric*. Le loup ne trouue point de Procureur qui le vaille.

(41) Urkixok Bertrand de Salguís erabili ohi zuen. Salguís edo Saugis da frantsesezko Zuberoako herri ttipi baten ordaina. Euskaraz Zalgize deitzen da Atarratzetik 12 kilometrora aurkitzen da.

(42) JAURGAIN, J: "A propos de °Los refranes vascos de Saugis" in RIEV, 1909, III, 320-330, 456-461or.

(43) Lehenago ere hitz egin dugu Urkijoren argitarapen honezaz. Urkijok bere lana RIEV aldizkarian argitaratu ondoren Gregorio MUJICA-ren artikulu interesgarri bat ere azaldu zen: "Notas adicionales a los Proverbios de Saugis" RIEV, 1909, III, 527-530or. eta "A propósito de un refrán" RIEV, 1910, IV, 146or.

(44) Berri gehiago jakin nahi duenak jo beza Urkijok egin zuen 1908 lanera. Ez dira gaizki etorriko Mitxelenaren beraren hitzak(Lan aipat. "Preámbulo" in *Refranero vasco. Refranes y Sentencias* 1596.: En la edición comentadade textos vascos Urquijo, con su exacta apreciación de sus dotes personales, se consagró a los refranes, para cuyo estudio comparativo reunió materiales muy copiosos en varias lenguas. Ya en 1908 (RIEV 2, 677-724), vieron la luz "Los refranes vascos de Saugis", traducidos y anotados por él. Después de esta publicación primeriza, empieza, a partir de 1911, la edición comentada de estos Refranes y Sentencias de 1596.

Saugis 12 *Onhets neçan troncoa, iduri ceguidan Jaincoa*. Amé un tronco, se me figuró Dios. Oih 368. *Onets nesan gure atsoa, iduri se quidan nescaxoa*: L'eus de l'amour pour nostre vieille, et ie la pris pour ieune pueelle.

Argi ikusten denez errefrauak ia berdinak dira. Desberdintasunik handiena erakusten dutenak azken biak dira Oihenartek *troco/Jaincoa* ekarri beharrean *atso/nescaxo* ematen baititu. Azpimarratu beharra daukagu jatorrizko eskuizkribua galdu denez gero ezin ditugula zuzendu begibistako okerrak edo hutsak ere. Esate baterako Zalgizekoaren *ceguidan* oker legoke eta ondo Oihenarten *sequidan*. Badago, halaz ere, lan berri xamar bat Zalgizeko bildumaren hiztegi eta abarrez (45).

Oihenarten idea edo, gaur egun esaten den bezala, garaikidea eta bera bezala protestante dugu Jakes Belakoa (1586-1667). Jakes Belakoa, aurreko biak bezala, zuberotarra izan zen. Jakes Belakoak Oihenart ezagutzen zuen baina ez omen zion estimu handirik, zeren bere *Le protestantisme et l'érudition dans le Pays Basque au commencement du XVIIe siècle*, Paris, 1896 lanean dio "Les nommés d'Oyhénart et Bonnecaze, sindies du tiers estat du dit pays [Soule] qui estoient bien aises qu'il y eut du mouvement dans le pays pour se grandir et s'enrichir dans le maniement des affaires". Jakes Belakoaren errefrauak *Tablettes* argitaragabe batzuetan omen daude barreiaturik. Mitxelenak 45 argitara zituen TAV 184-186or.. Badago, horrezaz gainera ere, errefrau bakar baten gaineko lantxo bat (46).

Oihenart mauletarrak esan dezakegu gure arteko paremiologorik handiena izan zela. Berak asmatu zuen hitzetariko bat *atsotitz* izan zen eta, gisa berean, hainbat aldiz errepikatu diren *neurtitz* eta *ilartitz* ere bai. *Atsotitz-neurtitz* di-relakoak sustraitu dira gure artean, *ilartitz* nekezago. Azkuek *atsotitz* hitz konposatua oinarri harturik beste hitz konposatuago bat asmatu zuen: *atsotizlari*, hau da, *paremiologo* hitzaren euskal ordaina. Azkueren asmakunde horrek ez zuen fortuna handirik izan gure artean (47). Pasarte honetako hariari eutsirik, bada, esango genuke Oihenart izan zela gure arteko *atsotizlaririk* handiena, hogeigarren mendea baino lehenagoko biltzaitailerik handiena behintzat. Oihenartek, Lino Akesolok dioskunez (48), bere lanaren hiru berrargitarapen ezagutu zituen, guk geuk ezin izan dugu datu hori Vinson zein Sorarrainen bibliografieta kontrastatu (49). Gorago aipatu dugun 706 errefrauak ez ziren

(45) ARZAMENDI, J & AZKARATE, M.: "Léxico de los refranes de B. de Zalgiz" in ASJU XVII, 1893, 265-327or.

(46) URQUIJO, Julio: "Acerca de un proverbio de Bela" in *Euskal-Esnalea* 1915, Irailla 30, 225-226or. Errefraua zerrendako bigarrena da *Assec gosse, ezta Koussa*.

(47) Gure esan honen bermeak ikusi nahi dituenak ez dauka Euskalerrriaren Yakintzako horrialde euskarazkoak ikustea baino.

(48) AKESOLO, Lino: "Zahar hitz, zuhur hitz: Zuhur hitz bilduma berria, iparraldeko bertularien lagunek eskainia" RIEV 30(1985). Baita bere idazlan osoetan ere *Idazlan guztiak* Larrea-Zornotza 1989 I tomoa 128-137or.

(49) Behardada Lino Akesolo emendioa, berze emendioa eta urhenkin hitzak kontutan har-

izan Oihenartek bildu zituen guztiak, zeren bere paperetan mordoxkada handi bat gehiago baitzeutzan argia ikusi gabe. Mitxelana izan zen Urkixok zituen Oihenarten paperak -edo kahierreko errefrauak- argitaratu, eta bilduma ale berri-zaharrez osatu zuena. Guztira, Mitxelenaren ezken emendioa kontutan harturik, ia 900 errefrau ziren, zehatz hitz eginez 892 (50). Txillardegik ezagutzen ziren Oihenarten errefrau guzti-guztiak harturik-Mitxelenak argiratu zituenak barrenean zituela-liburu batean eman zituen inprentara. Liburuaren izenburua *Atsotitzak eta Neurthitzak* izan zen. Liburu honek Oihenarten euskarazko produkzio guztia bildu nahi zuen, batetik, mauletarrak bere baitarik sortu zuen poesia, eta, bestetik, ezagutzen ziren errefrau guztiak. Asmoa, beraz, ezin hobea zen. Badiu gure ustez, ordea, zenbait akats. Zergatik ez sartu euskal errefrauekin batera itzulpen frantsesa? Esan dugu frantsesa errefrau zenbaiten hornigarri eta are argigarri ere gertatzen zela. Itzulpenik gabeko edizioa, era batera behintzat, edizio lepamoztua zen. Liburuak bazituen, gainera, inprenta huts eta are interpretazio huts nabarmenak. Hutsetariko zenbait-ez guztiak-Lino Akesolok maisuki eta egoki salatu zituen (51).

Julio Urkijok, guk dakigunez behintzat, ez zituen iruzkindu Oihenarten errefrauak -bat edo beste, bidenabar, eta beste errefrau batzuen ikusian izan ezik, jakina-, edo bestela esan, ez zien eskeini beste errefrau-bildumei adinako arreta eta lan zehatza. Horrek ez du esan nahi ahantzirik edo gutietsirik zituenik. Beharbada *Refranes*-i eskeini zion antzeko lan bat egitea zuen kontutan, zeren Iruñeko edizioko errefrau-ale guztiak iruzkindu ondoren 1935-an edizio faksimila egin baitzuen bere aldizkarian (52), gerora errefrauak behin banan azaltzeko. Kontua da gerra zibilak geldierazi zuela RIEV aldizkaria eta, iker-tzaile deustuarraren lan-paramiologikoak ere, zoritxarrez, eten egin ziren. Urkijo-ren aldizkari barruko edizio faksimilarekin, agertu eta hurrengo urtean, Isaak Lopez Mendizabalek separaten bidez aparteko liburuak-aparteko liburuak edo liburu apartak adieranean ez dira onak edo bikainak direnik adierazi nahi, solteak edo bereiz agertuak baizik- atera zituen. Lehen edizio honezaz gorago *Refranes* delakoaz esan duguna berriro dezakegu. Mugaz hunaindian gutxi ezagutzen zen Oihenarten lana, eta, mugaz haraindian ere lehen inpresioa ale bi baino ez ziren gelditzen, bata Parisko Biblioteka Nazionalean eta bestea Baionako liburutzaile baten eskuetan.

Bideak edo errefrau-ibilbideak honetara ekarri gaituenez gero, hitz egin dezagun Oihenarten errefrauaren bigarren argitaraldiaz. Liburuaren bigarren age-

turik egin zuen baieztapen hori. Guk, jakina, kontu hau ilunago ikusten dugu, zeren XIX mendeko Francisque Michelen argitarapena bigarrenekotzat baitauekagu

(50) MICHELENA Luis: "De paremiologia vasca" in ASJU 1967

(51) AKESOLO, Lino "Nonzeberri": "Oihenart: Atsotitzak eta Neurthitzak (Edizio berria)" in *Zeruko Argia* [34](1971), 426 zenbakia, 15 or. Baita bere idazlan osoetan *Idazlan osoak II* tomoa 1431-1435or.

(52) "Les proverbes basques recueillis par les d'Oihenart plus les poesies basques du mefme Auteur. Atsotizac edo refravac Prouerbes, ou Adages Bafques recueillis par le Sieur d'OIHENART A Paris M. DC. LVII" in RIEV Abril-Junio 1935 201-264 eta 665-728or.

rraldia Francisque Michel-ek egin zuen 1847an (53). Argitaratzaileen hitzetan edizio *berrikusi, zuzendu eta emendatua* da (revue, corrigée, augmentée). Francisque Michel Archu-ren laguntzaz baliatu zen, Archu zuberotarra baitzen Oihenart bezala, eta egin zituen zuzenketak (227-305or.) desegokiak eta aldrebesak dira erabat Vinsonek begi argiz salatu zuenez. Itzulpenak aldatuak izan ziren, zeren euskal-errefrauek biltzaileak ez bezala izan baitziren interpretauak edo ulertuak. Eranskinean, gainera, azaldu egiten dira errefrauen esangurak. Alderdi txar guzti hauek salatu ondoren esan ditzagun alderdi onak. Alde batetik errefrau-bilduma berriak agertzen dira, horrexegatik beragatik da *emendatua* (augmentée). Errefrau bildumetariko bat da, Benito Maestrek, Madriloko Biblioteka Nazionalekoak, erregalu eman zion Garibairen (Cc. 79) kodizeko errefrau-bilduma, eta, bestea, Archuren beraren hamalau errefrauko bilduma tipia.

Edizio honezaz landa badira zatikako edizioak ere mugaz hunaindian. Edizio hauek, zoritxarrez, oihartzun guti izan dute. Hor ditugu, kasurako, Stempf (54), Brunet (55) eta Haristoyrena (56) ere. Ohargarria da 1992an Oihenarten jaitzaren laugarren mendeurrenaren karietara biltzar eder bat ospatu zela. Delako biltzar horretan irakurri ziren lanak argitaraturik daude Euskaltzaindiako *Iker* 8-an.

Oihenarten errefrauez ere RS bildumaz esan dezakeguna berrituko dugu. Askok esan dute errefrau itzulien tankera dutela. Hor dugu, besteak beste di-rela, Mitxelenaren baieztapena (57). Oihenarten bilduman ez da Garibairenean antzematen den benetasun ez herri-kutsu bete betekorik. Adizki jokatu harriarriek ere benetasun horren kontra ez doazenik ezin uka. Badira, nola ez, herri-herrikoak direnak ere. Gorago aldatu ditugun errefrau iruzkindunak tankera horretakoak dira. Mitxelenak agertu zuen Oihenarten sail berrian badago beste zehaztasunik ere, bildu den euskalkia aipatzen baita. Zehaztasun hau, begibistakoa denez, benetasunaren berme indartsua da.

(53) *Proverbes basques, recueillis par Arnauld Oihénart, suivis de poésies basques du même auteur. Seconde édition, revue, corrigée, augmentée d'une traduction française des poésies et d'une appendice, et précédée d'une introduction bibliographique* [Par Francisque Michel]. Bordeaux: Prosper Faye; Paris: P. Janet, 1847 (LXXVI-310 or, 20 cm.) *Euskarazko portada: Uskarazko zuhur-hitzac aillan de Oihanartec bildiac zoinen ondotik jiten beitira Uskaraz egin zituen neurthitzac. Emendatia neurt-hitz frantsesiala itzuliez eta beste zerbaitez zoini aitzinian uskaraliburuen gainen ezarri beitzaiola laneguinbat*

(54) STEMPF: *Supplément des proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart, no 538-706. Avec la traduction en français. Nouvelle édition conforme à la première de 1657*. Bordeaux: F. Destouesse, 1894 (IV-13or., 24,5 cms.)

(55) BRUNET, Gustave: *Notice sur les proverbes basques recueillis par A. Oihenart*. Paris, 1859

(56) HARISTOY: *Arnauld Doyhenart et son supplément des Proverbes*. Bayonne, 1892.

(57) MITXELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*, 75 or. "Algunos probablemente no son populares, sino que fueron compuestos o arreglados por el autor"

Mauletarraren bilduma baino lehenagokoa Lope Martinez de Isastiren (1565-) *Compendio Historial de Guipuccoa* 1625 idatzia baina, 1850 argitaratua dugu (58). Liburu zoragarri honen 171-175 orrialdeetan 86 errefrauok bilduma eder bat agertzen da. Errefrauok liburu egileak berak Gipuzkoan bildu, abezekiro ordenatu eta erdal itzulpen batez hornituak daude. Itzulpenak, kasu honetan ere argitasun politak ematen dizkigu. Bilduma hau da, inolako eta inondiko zalantzarik gabe, euskaldunok dugun errefrau-bildumarik ederrenetarikoa bat. Balio handikoa da alderdi guztietatik, batetik oso zaharra da, ohar-garria da *Refranes*-ko ediziotik bakarrik 29 urteko tarte dagoela, bestetik, errefrau-ale guztiak dira herri-kutsukoak. Ez dago kasu honetan, Oihenarten eta *Refranes* bildumetan ez bezala, inongo itzulpenaren beldurrik. Isastiren bilduman ez dira *Refranes*-en agertzen diren beste arkaismo ez eta hainbat aditz trinko ere. Honetan Oihenart dugu harrigarriena. Agertzen dira, halaz ere, zenbait: *nesan* 44ean eta *Darrayonarenzat* 24ean. Agertzen da aoristoa (*Aserra citean, ager citean*) 50 eta 81ean. Gaur egun ekialdeko euskalkietan bakarrik agertzen diren zenbait forma ere agertzen dira *oro* 59, 69, 72an eta (*h*)*or* perro, *Refranes*-en ere agertzen dira, jakina den bezala, *oro* zein (*h*)*or*. Badira esangura arkaikoko hitz bat edo beste, esaterako, *arto* “mijo” adierazteko, hau da Ameriketatik ekarri zen *artoa* “maiz” oraindik adierazten ez zuela. Errefrau hauek guztiak Mitxelenak bere TAV liburuan sartu zituen eta ohar jakingarri eta baliotsuz jantzi zituen. Hori da, beraz, bilduma honez dugu lan on bakarra. Bilduma hauetako aleak beste bildumakoekin ere erka daitezke. Hona zenbait adibide:

Isasti 12 *Balizco olaac, burnia guchi*. El decir si tubiera herreria trae poco fierro. RS 15 *Balizco oleac, burdiaric ez*. La erreria de fi fueffe no aze fierro.

Isasti 66 *Odolac su baque diraqui*. La sangre sin fuego yerbe. RS146 *Hodolak fu бага diraqui*. La fangre sin fuego hierue.

Isasti 74 *Otsoa atal ondoan*. El lobo acabando la plática (Lupus est in fabula) Oihenart 385 *Otfoa non aipa, han gerta*. Là où on parle du loup, on le rencontre.

Isasti 79 *Trabajua mañac garai*. Oihenart 267 *Ieinua ascarrari garhait*. L'Induftric furpaffe la force.

Isasti 32 *Erric bere legue, ycheac bere aztura*. Cada tierra su ley, cada casa su costumbre. (En cada villa su maravilla) Oihenart 229 *Herric bere legue, exec bere aftura*. Chaque país a fa loy, & chaque maifon a couftume.

Oihenarten bilduma baino lehenagokoak dira elkarrizketa batzuetan txertaturik edo zirtakaturik dauden Voltaire-ren errefrauak. Liburuaren izenburua

(58) MARTINEZ DE ISASTI, Lope: *Compendio historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipuzcoa. Por el Doctor Lope de Isasti en el año de 1625, en presencia del manuscrito copia del original*. San Sebastian: Ignacio Ramón Baroja, 1850 (X-671-41-6 pp., 27,5 cms.)

L'interprète ou traduction du François Espagnol et Basque de Voltaire, 1620koa. Gustav Brunet izan zen liburu erdi ahanzi honen garrantziaz jabetu zena. Elkarrizketetan 78 errefrau tartekaturik zeudenez gero gora handikotzat hartu zuen ikerlari honek. Lehenago ere aipatu dugu Gustav Brunet Oihenarten eranskin baten aurkitzaile moduan. Erran delako Brunet honek 1845ean berregitaratu zuen elkarrizketa-liburutxo honetatik ateratako errefrauak beste izenburu bateko liburuxka batean *Anciens proverbes basques et gascons recueillis par Voltaire et réunis au jour par G. B.* Liburu honek euskaraz zerrendaturik agertzen ditu errefrauak Voltaire-ren grafiaz, frantseseko itzulpena aldamenean duela eta euskarazko errefrauen ortografia eguneraturik. Liburuak badauka beste atal interesgarri bat: euskal errefrauen erkaketa atzerrietako beste errefrau batzuekin. Liburu honek baditu bere alde onak. Batetik, Brunet izan zen bere errefrauen arteko konparantza edo erkaketeekin lan paremiologikoei sarrera xumea eman ziena. Ez du Brunet-en lantxoak hurrengo mendean Urxixok egingo dituenekin zerikusi handirik, baina, bere xume eta ximplean, errefrau-baliokideen lanen lehen-harria jarri zuen. Errefrauen beren balioaz denaz bezainbatean, esan beharra dugu, ez dutela gehiegizko baliorik. Frantseseko herri-aleen itzulpena da batez ere. Ez dira Isasti eta Garibairenak bezala herri-kutsukoak. Itzulpena bera ere interesgarri izan daitekeela aitortu behar dugu, itzultzen denean askotan errefrau bera helburu-hizkuntzan nola esaten den kontutan hartzen baita. Beste era batera esateko, edozein erdaratatik euskarara itzultzen denean, itzulpen zuzena edo zuzenegia izan beharrean gerta daiteke euskarazko balioak nolako den kontutan izatea itzultzaileak. Horrelako zerbait gertatu zen, esaterako, Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) delakoan. Elkarrizketa hauen izenburua frantsesez *Thresor des trois langues françois, espagnole et basque* (59)gure artean Patri Urkizuk argitaratua da. Hona hemen zenbait adibide:

2-Haizea eta emazte eta fortuna kambiatzeco errech dire ilhargia bezala. Le vent, la femme et la fortune sont muables comme la lune.

4-Astoak ekhartzen du mahatsanoa eta edaten du ura. Le asne porte du vin et boit l'eau.

23-Erroma etzen oren batez akabatu. Rome ne fut pas faite en vne heure.

24-Esku batek bertzea garbitzen du. Une main laue l'autre.

Badira bilduma honetan errefrau ez diren esaldiak ere, hona hemen ale bi:

(59) "Tresora hiru linguayetakua Frantzes, Española eta heskuara" in ASJU 1971, 174-191or. Egia esan izen izan dut Voltaire-ren *L'interprète ou traduction*. konsultatu baina bai Brunet-en *Anciens proverbes* eta *Thresor des trois langues*. Brunet-en lanean ikusi ahal izan dut *Thresor* horretan aurkitu ez ditudan adibide batzu. Hona hemen zenbait: 5-Azti balimbanintz, ez nintake ni pobre kokin. Sy j'estois devyn, je ne mourrois paouvre ni coquin. 16-Dembora eta fortuna oren oroz mudatzeko errech dire eta hañitz dago goiçian irriz zeña baitago arratsean nigarrez eta marraskaz. Le temps et la fortune se changent en peu d'heures, et tel rit bien le matin qu'il soir gémit et pleure.

27-*Fachu zara ura ithaitzuran bezala*. Vous estes importun comme l'eau en gouttière.

33-*Gauza Cruela da afigitzea aflieatua*. C'est chose cruelle que d'affliger l'affligé.

Orain arte errefrau-bilduma eta errefrau-biltzaileez aritu gara. Badira horhan-hemen XVI-XVII mendeetako errefrauak. Errefrau horien berri jakin nahi duenak jo beza Mitxelaren TAV "Refranes, divisas etc." atalera. Badira hiztegi zein elkarrizketa liburuetan ere noizean behin errefrau bat edo beste. Hor dugu N. Landuchio-ren *Dictionarium lingae cantabrigiae* (1562) liburu amaieran *Iltean il ninçan, da aztu ninçan Morime en tiempo de mortâdad y olvidarôme* errefrau bete betekoa, itxura guztien arauera. Silvain Pouvreau-ren hiztegi argitaragabea (60) Oihenarten errefrauak daude txertaturik, eta baita, Oihenartek berak emandako hitzen gaineko eta esaera bat edo besteren gaineko oharra ere. *Almuteda kolkoan* esaera, Oihenarten oharrez bildurik agertzen da. Pouvreau-k berak zenbait errefrau erdaraz eta euskaraz ematen ditu eta euskarazkoa, askotan zoritxarrez, erdarazkoaren itzulpena da.

Rafael Mikoletaren elkarrizketa liburua ere *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653) errefrau itzuliz zirtakaturik dago. Baina zenbait errefrauera ere, hurbilago dago garai bateko Bilboko euskararen erabiltzen zirenetatik itzulpen zuzen eta josi batetik baino. Badira liburu erlijiosoetan txertaturik dauden errefrauak ere, esaterako, Axularren *Guero* (1643) lana dateke errefraueta aberatsena XVII mendean. Axularrek errefrauari zenbaitetan sarrera hitz batzu jartzen zizkion *erran komuna den bezala...* edo *erran komuna da* hona zenbait: *Erran komuna da, eta ongi errana da (lehen ere erran dugun bezala) eztiataiola nehork ere nehori, hanbat kalte eta bidegabe egin, nola berak bere buruari.*(399) *Zeren erran komuna da, gezurak zainak labur dituela* (331) *Zeren erran komuna den bezala, otharre bat egiten duenak egin ditzake ehun ere, gezur bat erraiten duenak baderrake gehiago ere*(178). *Hura da, hurran hurran erran komuna den bezala: usoak ioan sareak heda* (158) *Zeren nola erran komuna den bezala, otsoak ian baitezake ardi kontatuetarik* (162). *Zeren erran komuna den bezala, ikhusten eztauen begiak ezta miñik.*(193) Axularrek errefrau erabili ohi du eman duen adibide baten azken hitz bezala. Badira sarrera hitz gabeko errefrau txartatuak ere. Hemen ez dugu astirik Axularren errefrau guztiak aldatzeko baina guztiok ezagutzen ditugu *ardurako arropari etzaika zerrenik egiten* (24) edo *Dabillen harriari etzaika goroldiorik lotzen* (24). Errefrau jakin edo seguru hauezaz landa Axular bera dateke euskal literaturaren autore sentenziotsuena, hau da, baditu hainbat esaldi errefrau izan ez arren oso hurbil daudenak, esaldi erabat sentenziotsuak direlako, hona diodanaren berme eta lekuko pasartetxo bat: *Zeren dirua ezta segur ohoinak diren*

(60) Hiztegi argitaragabe hau ere Parisko Biblioteko Nazionalan aurkitzen da. Kopia bat Urkijoren bibliotekan zegoen. Guk laster argitaratuko ditugu eskuizkribuko errefrauak.

lekhuian; ez ardia otsoen artean; eta ez iztupa suaren aldean. Hiru esaldi horiek esaldi sentenziotsuak *direnik* ezin uka, errefracatik oso hurbil daude-nak (61).

XVIII MENDEA

Aurreko mendeak aberatsagoak izan ziren errefracu-bildumetan. Baziren errefracu-liburu monografikoak ere, XVIII mendea, ostera, askozaz antzuagoa da, zoritxarrez. Badira hala ere zenbait errefracu txertatu hiztegietan. Hor dugu Pierre d'Urteren hiztegia (62), 1715koa, ia gaur egunera arte argitaragabea. Hiztegi horretan agertzen dira zenbait errefracu eta erramolde bat edo beste: 1 *Holáco sortçe halacó jaidúra*. 2 *Irabaciác oignac arin ditu*. 3 *Uria errepi-rentçat ona nola fruituéntçat*. 4 *Arraçoinak erreguigna beça, haraguiac obedi beça*. 5 *Ehailleac hari hariari*. 6 *Zenbat egun har hambat egun gal*. 7 *Hantçiren han çignac eta mignac*. 8 *San crichpignen presondegian naz*. 9 *Astean hirur ortçegun dathoçenean*. 10 *Their hour-glasses running with water as ours do with sand. Hequien ur-orénak badihóaz gure hare orenac beçala*. 12 *Vide saepe hircum coclitem, hirsutum camura cornua habentem egregia cornua. Ik-husi dut hagnitçetan akher okher mokhor adar eder bihurric*. Sententia hac in lingua cantab. allegata prolata fuit quondam disputatione veluti dictum quod-dam heraicum recepta et probata.

Errefrauen zenbakitzea gurea da. Baliokide asko aurki daitezke geure errefracu bilduma zaharragoetan. Adibidez 2-*Irabaciác oiganc arin ditu*. Azkuek

(61) Axularrek bere *Gero* lanean txertatu zituen errefracuak erabili zituen Urkixok bere lan paremiologikoetan. Badago orain arte aipatu ez dugun lan bat *El refranero vasco antiguo y la poesia vasca* 73 zenbakia Ekin Buenos Aires 1978 Egilea guztiok ezagutzen dugu JM de LEIZAOLA. Egia esan Urkixok esaten dituen gauzak berresaten ditu gehienbat. Leizaolaren liburuak harrigarri egiten zaizkigu hainbat iruzkin , , esaterako: RS 517 *Eder elaea goxean cátxean enearé cátxeac jonau bioxean* iruzkintzen du. Batetik ez du jartzen jatorrizko forma gaur eguneko baizik. Aldaketa horren arrazoiak ematen ditu. Ondo deritzagu. Baina hona guri dagokigun pasartetxoa "El texto debería a mi juicio ser transcrito así en guipuzcoano: *Ederra elaea/goixean kantatzean/enearen kanteak/fo nau biotzean*, respetando "kanteak" como un arcaísmo probable, a causa de la rima. 31or.

Pasarte honetan badira mila gauza harrigarri eta bitxi. Zergatik jarri gipuzkoako euskaraz? Behin hala jarriz gero-eta ez deritzat gaizki gipuzkoako euskeraz jartzea- zergatik eder delakoa *ederra* delakoa aldatu? Ez al da Gipuzkoan beti kantatu kopla zaharretan *eder zeruan izarra/zeruan eder izarra* edo *eder basoan haritza/basoan eder haritza* eta abar eta abar? "kanteak" ez da ez "a causa de la rima" ez "un arcaísmo probable". A organikodun hitza, Bizkaian jakina, *alaba, elixa* eta abarrek ergatibo singularra alabeak elexeak eta abar egiten dute guztiok dakigunez. *Alabeak gona gorria erosi dau. Elexeak teilatu barria dauka* eta abar.

Ez goaz liburua bere osoan zapuztera, baditu alderdi meritugarriak ere. Leizaolak Voiltoireren errefracuak ere iruzkintzen ditu, datu historikoz errefracu bakoitza hornitu du.

(62) URKIZU, Patri : *Pierre d'Urteren hiztegia*. Londres 1715 I eta II Mundaiz. Donostia 1989. Hiztegi eskudatzi hau Londonen aurkitzen zen. Patri Urkizuk hiztegi honen gaineko tesia egiten eta Mundaiz aldizkarian argitaratu zuen. Errefrauk 101-102 orrialdeetatik hartu ditugu.

Irabaziak zangoak arin ditu (BN). Badira errefrau ez direnak ere. Erramoldeak edo modismoak da *7-Hantçiren han çignac eta mignac* (63).

XVIII garren mendeko errefrau-biltzaile eta itzultzaile dugu Manuel Larramendi(1690-1760). Larramendiren hiztegian hainbat errefrau agertzen dira barreiatuak latinez, gaztelaniaz eta euskaraz. Euskarazkoak asko eta asko euskal herri-jatorrikoak dira, eta beste askok, ordea, itzulpenaren sundatxoa dute. Euskal jatorri garbikoak dira:

1-A tal abad, tal Monacillo, *nolacó jabeá, alacó tresneá*. Lat. Dignum patella porculum. El abad de donde canta de allí yanta, *nondic lan, andic jan*. Como canta el abad responde el Monacillo, *nola da hiztuna, alada enzuna, esale, enzule*. Abad hitzean.1or.

2-A padre allegador, hijo expendedor, *aitá biltzálle, seme galtzálle*. Allegador hitzean 60or.

3-Allegadores de la ceniza, y derramadores de la harina, *zayetan zur, ta iriñetan eró, iriñetan zogui*. Allegador hitzean. 60or.

4-*Alper da Maria maquillatu, berez beardu*. Refran, que enfeña, que no sirven los palos para hazer, v. g. difcreto à vn tonto, fi de suyo no tiene fondos. En Navarra se dizen afsi. *Alper da Maria Maquillatu, ezta berdin zentzatu*. Apaleado hitzean 83or.

5-*Oltzac beguiac, fafiac belarriac*. Refran que enfeña el gran tiento en el hablar à folas, y en fecreto; porque, como dizen, las paredes oyen: literalmente fignifica, que el aparador tiene ojos, y el zarzal oidos. Aparador hitzean 83or.

Adibide hauek askiko dira zer nolako herri-errefrauak bildu zituen Larramendik. 1-*Nolako jabea, halako tresnea* 2-*aita biltzaile, seme galtzaille/gastatzaile*, 3-*zahietan zur eta iriñetan ero* 4-*Alper da Maria makilatu, berez behar du bezalako errefrauaren baliokideak gaur eguneko euskaran ere erruz bil daitezke* (64). Guk zenbakiturik jarri dugun 4-adibidean, esaterako, nola esaten den Gipuzkoan zein Nafarroan ere agertzen da. Baditu andoaindar argiak hainbat errefrau itzulpen sunda edo kirastunak:

6-*Quien calla, piedras apaña, guizona isil, arriac biltzen dabil* Apañado hitzean 83or.

(63) Hona hemen Axularren pasarte bat *Han dira zinak eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hats-beherapenak, intzirinak eta maradizioneak* (188)Gero Jakin Aranzazu Oñati, 1976 Villasanteren ediziotik

(64) Azkueren *Euskalerraren Yakintza* III liburutik kopiatzen ditut hauek: 125 *Alper da Maria makilatu, ezpada berez biurtu*. Es inútil apalea a María, si de grado no se reduce (Bc, Dic). Var 1.a: *Alper da María makilatu, berdin berezbehar du*. ("El borracho burlado" in RIEV, II, 400-436or) Uriarte recogió esto mismo en Izpazter, sin el vocablo berdin. Es inútil apalea a María. De sí misma lo necesita. Variante 2: *Arpel da María makilatu, ezpada berez bedinkatua*. Es inútil apalea a María, si de suyo no es bendecida (B-derio)

7-Tràs cornudo apaleado *adartu oftean maquillatua* Apaleado hitzean 83or.

8-Añádefe à efte mal otro mayor, *gaitz oni befte andiago bat darraica*. Lat. Gravius adhuc infat malum. Añadir hitzean 81or.

9-A muertos y à idos no ay amigos, *adifquide guichi, illai, ta joan diranai*. amigo hitzean 68

10-Amores, *conclusiac*. Lat. Veneris ftimuli. Obras son amores, que no buenas razones, *Obrac dirade amoré, ez hitz ónen colore*. amor hitzean 69

11-En los nidos de antaño no ay paxaros ogaño, *igazcó cabiac utfic, ezta an aurten choriric* Antaño hitzean 78or.

12-No por mucho madrugar amanece más temprano. Refr. *Goiz jaiquiá eztá egun sentia* amanecer hitzean 66or.

13-Quien mucho abarca, poco aprieta: *asco abarcatzeá, da guchi estutzea*. *Asco egun nai, guichi eguin bay*. Lat. Dum complecti vis multa pauca tenes. Abarcar 2 or.

Azken zortzi hauek ez dira gure errefrau-tradizioan aurkitzen, eta badirudi, ia oker egoteko inongo arriskurik gabe esatera ausartatuko nintzateke, itzuliak direla. *Adartu ostein makilatua* Añibarrok bere hiztegian badakar, baina arratiarrak Larramendiren hiztegitik hartu zuela iruditzen zaigu. Larramendiren hiztegioko errefrauen balioaz aspaldi ohartu zen Mitxelena (65) eta artikulua labur batean adierazi zuen interesgarri litzatekeela guztiak bildu eta zerrendatzea (66). Marcelina Arluziagak artikulua batean bildu zituen hiztegioko zenbait errefrau, baina bildu zituenak ez daude ondo bildurik, hau da, ez dakartza hiztegioko zertzelada eta argitasun guztiak, eta, hiztegioko errefrau-kopuru gutzitik oso gutxi bildu zituen (67)

XVIIIgarren mendeko bildumarik interesgarriena, beharbada, Joseph de Jesus Maria Arakistain (-1765) karmelitarrek Larramendiri bidali ziona dateke. Arakistain debarrak bere maisutzat zeukan Larramendiri errefrau-bilduma zoragarri bat badali zion, hiztegioko errefrauek eraginda noski, hurrengoko berargitarapenean hiztegian sar zitzan. Errefrau-bilduma herri-kutsu erabatekoa da, euskaraz dauden bildumarik ederrenetakoa. Arakistainek bidali zizkion errefrauen lehenburuan badago sarrera esaldi txundigarri bat: Pongo tambien los refranes ó modos proverbiales siguientes, aunque despreciables. Ezereztzat

(65) MITXELENA, Luis: "La fuente de un refrán" in BRSAP 1959, 74-75or. Hona erren-teriarren oharra: Debiera ser innecesario, pero acaso no lo sea del todo, recordar que ese *Diccionario*, aparte de otras muchas informaciones nada despreciables, tiene desparramada una bonita colección de refranes. Por las notas sueltas que encuentro en las páginas del ejemplar de su propiedad, veo que don Julio de Urquijo se dedicó a entresacarlos para su Refranero vasco, pero, que yo sepa, no llegó a publicarlos y comentarlos en conjunto"

(66) Nik neuk lan hori egin daukat baina beste leku baterako prestatua dut lantxo hori.

(67) ARLUZIAGA, Marcelina: "Refranes" in BRSAP 1952, 509-511or.

edo arbuia garritzat jotzen zituen errefrauak, ez dugu uste aintzat izango zituenik, biltzeko arreta eta gero bialtzekoa hartu baitzuen. Arakistainek bere maisua zen aindoindarrairi apaltasun handiz zuzentzen zizkion hitzak, horrexegatik bidalitako hitz-zerrenda zein errefrau-zerrenden balio apala markatu nahi zuen.

Errefrauok aita Fitak argitara eman zituen *Revista de Ciencias Históricas* delakoan, joan den mendean (68). Bartzelonako aldizkari batean izan ezik beste inon errefrauok agertu ez direnez gero-geure ezjakinean ez dugu beste inon ikusi- zilegi bekita hemen jartzea lan honen aberasgarri:

1-Para significar la abundancia de merluza por el mes de Mayo; *etorrigo da Mayatza, sango deguna legatza*.

2-Para decir que es un despropósito ó cosa imposible; *oquerrac zucen dizala, dezala*, etc.

3-La verdad amarga; *eguiac sasiac erretzen*.

4-Lo que es bueno para el hígado es malo para el bazo (sic) brazo *; *gui-beleco on dana bareco gaistó*.

5-Quien espera desespera; *beti bigar, beti bigar ezten onela vicibear; gue-re zaiñac eguin dira, basoan zotzac becein igar*.

6-*Adiñona bost hume, alaba bi, ta iru seme*; para significar que bastan cinco hijos.

7-*Or erorte galercite*; literalmente significa que el tiempo de la sementera de trigo suele hacer malos temporales, de manera que ya se cae aquí, ya acullá el sembrador y parece quiere decir que las cosas muy útiles y necesarias, no se han de omitir por la dificultad.

8-En casa del herrero, cuchillo de palo; *arotzaren echea zotzez*.

9-Al delicado, poco mal y bien atado; *zuri baten papua eta lauzurico trapua*.

10-A veces es peligroso confesar la verdad; *lapurrac on dic ucoa uca ezac guzagaysoa*.

11-Del que disimula virtud; *errosarioa escuan **; tadeabrua colcoan*.

12-Los arboles de la tarde indican serenidad, los de la mañana agua. *Arrats gorri eguraldi, goizgorri, euri dagui; ó tambien; eurilari, n*.

13-Para el día de año nuevo, sensiblemente alarga el día. *Eguberri, zoroac ere iguerri, g*.

(68) ARAQUISTAIN, J.J.M.: *Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi. Barcelona: Sempere*, 1881. (*Revista de Ciencias Históricas*, 1880-1881, II, 416-433; III, 113-120, 350-374, 1881, IV, 72-87, 149-163or.

* Bazo behar luke ez brazo.

** Zestuan escuar dakar.

14-Cuando nieva mucho en el mes de Enero, será abundante la cosecha. *Hibeltza (?) ill zuri, babea betez itzuli, g.*

15-A últimos de Febrero y mediados de Marzo, suele harcer mal tiempo. *Otsaillac buztanaz, Marchoac bularraz, g. n.*

16-Abril, aguas mil. *Apirilla euritsu, Urte hura oguitsu, n. g.*

17-Por la Semana Santa, suele granizar ó nevar. *Ni erramuren bildur, eguin dezan cizorcarequin elur, n.*

18-Cuando la Candelaria plora, el Invierno está fuera; si no plora, ni dentro ni fuera. *Candelaria bero negua dauca guero: Candelaria otz, negua joan da motz, n.*

19-Lo que es malo para uno, suele ser proficuo para otros. *Bataren gaitzaz besteac ona, g. n.*

20-A la vida holgazana, se sigue la pobreza y miseria. *Naria * gurea gorule gaixto aren atorreac zuloric asco, g.*

21-El diablo predicador. *Oquerrac zutzen ditzala.* Y tambien; *camarrac humeari, oquerra, zutzen adi, g.*

22-Al que despues de mucho trabajo, se deja vencer, decimos: *ibilli ta ibilli, ta gueroenean erori, g. n.*

23-Y á quien casi vencido todo se dejar rendir; *ichaso gustiac igaro, eta bazterrean ito. g.*

24-No hay lugar ni ejercicio mas gustoso, que donde uno se ha criado. *Aitzean aciác aitzera nai, g.*

25-Quien elige por capricho, tendrá que arrepentirse. *Nor bere buruqui, eguin ondoan urriqui, n.*

26-Allá acude cada uno, donde tiene su deseo. *Non dan nere gogoa, on da neure zancoa, g. n. ***

27-La vista del amo engorda al caballo. *Rreiac on deu, larre aldean obe jabe, n. g. ****

28-Cuando se puede sufrir la cosa, pero el modo ó otros adjuntos se hacen muy pesados, se suele decir: *Naiz bero bego, goibel balego, n.*

29-Cada uno busca su conveniencia, y solo Dios es para todos. *Nor beretaco, Jaincoa gustiendaco, n.*

* *Maria* behar luke.

** *An* da neure zancoa.

*** *Beiac on d(e)u larrea, aldean obe jabea* behar luke.

30-Si soy malo, solo lo soy para mí. *Gaixto banaiz, neretaco naiz*, n.

31-A padre allegador, hijo expendedor. *Biltzalle onari barratzalle*, n.

32-A muertos y á idos no hay amigos. *Guizon illac bizarra otz*, n.

33-No se han de dejar enfriar los negocios. *Burdina bero da (?) jo*, g. n.

34-Donde menos se piensa salta la liebre. *Lur belchac oguichuria*, n.

35-De casta le viene al galgo etc. *Badeu nori iduri*, g. n.

36-Más el ruido que las nueces. *Vrrungo eltzeac urrez, allegatu ta lurrez*, n. g.

37-El que bien trabaja, debe comer bien. *To to saluxan(sic), nola lan, o la jan*, n.

38-Cada uno piensa donde le duele. *Aoac non deu miña, ara dia mija. En Navarra se dice. orac, non du miña, ara darama mija.*

39-En casa del herrero, cuchillo de palo. *Arrotzaren echean querrena chochez*, n. *Querrena*, es asador.

40-Cada cual ruega á sus santos. *Norec bere santuai otoitz*, n.

41-Allegadores de ceniza etc. En Navarra dicen; *errealaren zur, eta ducataren ero.*

42-Debe callar el que tiene porqué. *Lepoan sarna duenac, buruacur*. n.

43-Sobre cornudo, apaleado. *Zauriaren gainean picoa*, n. *Picoa*, es herida con los filos de alguna arma.

44-No le arriendo la ganancia. *Arendaco aren babac*, n.

45-Muy temprano se descubren las inclinaciones de cada uno. *Elorriac lendanic mocoa zorrotz*, n.

46-A muchos beneficios, mayor ingratitud. *Ongui eginari ondoan illiti*, n.

47-Quien deja para despues, nunca lo quiere hacer: *guero dioanac bego*, n.

48-Más el ruido que las nueces; *oñaztura andi, ta euguichi*, g.

49-Donde las dan, las toman; *eguioc eguilleari*, g.

50-Cuando uno por otro se dejan la cosa por no quererse humillar, se dice; *zu andi, ta ni andi, norc gure afari arri?* g. *

* *Norc gure ostoari arri behar luke.*

52-*Pesadumbre, estrobua, g. Y de aquí el rafran; zurraren echean ezta faltaco estrobua: Dollorraren echean ezta faltaco estrobua.* Es lo mismo que zurraren echean birretan afaldu.

53-*Bacoica* ** berealdian, cada uno, cada cual á su turno, en su turno (69).

Guk lantxo honetan geure literatura idatzi zaharrean aurkitzen diren atsotitz-bildumen iturri eta joan-etorriak azaltzen ahalegindu gara. Errefrau -biltzaileek beren artean izandako eraginak ere handi-handika azaldu uste ditugu, era berean, bilduma zahar bakoitzak geroago etorriko diren biltzaileetan zer eragin izan duen ere aztertu nahi izan dugu. Gehienbat erabili ditugun hitzak *errefrau* eta *atsotitz* izan dira. Euskaraz, dakigunez, erdaraz bezalatsu, badira errefraua adierazteko hainbat hitz *arrapu, esakune, zuhur hitz, esaera zahar, erranairu, erran zahar, erasia, errepain* eta abar. Guk irakurlearen errazgarri *errefrau* eta *atsotitz* baino ez ditugu erabili. Badakit *errefrau* hitza ez dutela askok onartzen eta *atsotitz* bitxi xamarra gertatzen zaiola askori. Guk bi hitz horiek aukeratzean euskaraz esaldi senteziotsuak adierazteko idatzi ziren lehen bi hitzez baliatu gara lantxo honetan. Badakit, era berean, lehen hitza *anbiola* dela, harako RS 32 *Anbiolaco fupitac eguiac. Refranes deltiempo pafado uerdades. Esaera* zein *esaera zaharra* da hegoaldeko formarik ezagunena, baina era berean, ilun xamarra ere bada askotan errefrauz gorako esaldi sentenziotsuak ere adierazten dituelako. Guk Oihenarten harako *Atsotizac edo refravac Prouerbes, ou Adages Bafques. Recueillis par le Sieur d Oihenart* Izenburu hartako atsotitz eta errefrau hitzak geure egin ditugu, jakinaren gainean zer uzten dugun bide ertzean.

Azalpen hutsetik kanpora, azterketa honetan adibideak ere irakurlearen gozarritzat ekartzen ahalegindu gara. Bilduma edo lan paremiografiko guztiek zer azterketa ekarri zuten Julio Urkijoren eskutik ere azaltzen saiatu gara. Azkenik, azken-harri bezala, Arakistainen bilduma agertu dugu oso osorik, euskal aldizkarietan, guk dakigula behintzat, agertu ez delako, eta, joan den mendeko separata eskuragaitz xamar dagoelako euskaldun askorentzat. Gure lana giltzatu edo borobiltzeko giltzarria horixe izan da. Irakurlearen ederrarren egin dugu, guretzat ere eder izan baita altxor hori eskuratzea. Errefrau hauen zenbakitzea gurea da, itzulpena, ordea, biltzailearena berarena. Bilduma honetako aleen baliokideak aurkitu eta aleak berak iruzkintzeak luzeegi joko liguke. Damu dugu XIX eta XX mendeetako atsotitz-bildumen ibilbidea ez agertua. Bi azken mendeetako historia nahikoa bihurri baita horrialde hauetan azaltzeko. Bego, beraz, horretan.

** *Bacoitza* behar luke.

(69) Hemen bakoitza izan behar luke baina halaxe kopiatu dut nik. Inprenta hutsa dateke.